

**GARDENTASUNARI, GOBERNU IREKIARI
ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEARI
BURUZKO ARAUDI ORGANIKOA**

*Aholkularitza Juridikoa - Parte-hartzea
Basauriko Udala*

ZIOEN ADIERAZPENA

-I-

XXI. mende honen hasieran, idazle batek zera adierazi zuen: “publikoa ez da mila aukeraren arteko beste bat bakarrik: elkarrekin bizi eta hiria partekatzeko modua da, hiritar aktiboa izateko aukera pertsonala da, partekatutako zerbitzuak dira, berezitasunetatik abiatu eta lotura-puntuak ezartzea, guztiontzako eta guztiok aintzat hartuta eratutako etorkizuna eta orainaldia”. Beldur izpirik gabe esan dezakegu gizartea botere publikoaren egikaritzan eta erabakiak hartzeko prozeduretan nahastea ez dela *aukeran* dagoen zerbaite. Aitzitik, gizartearen eskari sendoa da, hain sendoa, ezin daiteke bazter utzi, horrek erakundeei legitimazioa kendu eta irudikatu ezin ditzakegun ondorioak ekarriko lituzke eta.

Gure inguru historiko eta soziopolitikoan demokrazia zentzu liberalean ulertu izan da: boterea herriarena da, herriarengandik (*demosengandik*) sortzen da eta herriaren ordezkariari eskuordetzen zaie, egikaritu dezaten. Sarri askotan, ordea, herritarrei ukatu egin zaie botere horren egikaritzaren behar bezala ikuskatzeko aukera, eta herriaren ordezkariari –ez ordezkari politikoei, ez herritarren elkarteei– ez zaie galdegin herriari euren jardueraren kontu ematea. Eta, finean, herria da ordezkari politiko eta herritarren elkarte horien botere politikoaren titularra. Honen guztiaren helburua, beraz, zera da: erakunde publikoetan gabiltzanok “herriaren zerbitzuan” ari garela dioen esaldia benetako bihurtzea, hau da, erakunde publikoetako langileok gu hautatu gaituzten herritarren esanetara egotea, ez besterik.

Gaur egun bizi dugun krisi egoerarako (krisi ekonomikoa, politikoa eta soziala) oso aproposa da Tocquevillek, duela ehun eta berrogeita hamar urte baino gehiago *La democracia en América* liburuan idatzitakoa: “demokrazia ezartzea, hori da gure garaiko koska nagusia”. Oraindik orain, eta inoiz baino gehiago, halaxe izaten jarraitzen du.

Hartara, zenbait faktorek bat egiten dute: alde batetik, herritarrei kontu eman eta haien eskaerak jasotzeko ahalmena hobetzeko nahia dago; beste alde batetik, herritarrek erakundeengatik aldentzeko duten joeragatiko eta konpromiso politiko faltagatiko ardura ageri da; era berean, begi-bistakoa da herritarrek parte hartzeko dituzten itxaropenak gero eta handiagoak direla, eta administrazioko langileen, teknikarien eta politikarien jarrera gero eta proaktiboagoa dela. Horregatik guztiagatik, eta demokrazia erabat asanblearioaren berezko gehiegikerietan erori gabe, herritarren zilegizko itxaropen horietan sakondu beharra dago: ez dute jardun politikoan ikusle soilak izan nahi, ez dute hurrengo hauteskundeak arte zain egon nahi.

Parte-hartzeak zenbait baldintza betetzea eskatzen du. Horietako batzuk objektiboak dira: lehenik eta behin, erakundeetako alor juridikoak irekia eta

gardena izan behar du. Behin hori beteta, herritarrei parte hartzeko aukera ahalbidetu beharko zaie, eta herritarrek osatutako talde eta erakundeei ere bai.

Basauriko Udalaren abiapuntua, beraz, herritarren borondatea errespetatzea izango da, eta horrek eskatzen du herritarrak ondo informatuta egotea bermatuko duten tresnak ezartzea. Egokiro informatutako gizarteak baino ezin du arrazionaltasunez eta *jakinaren gainean* jokatu. Horrek guztiak, gainera, autoestimua hobetu eta gizabanakoei euren burua subjektu politiko gisa ikusten lagunduko die; hori gizakion parte da, geure duintasunaren parte. Beraz, lehenengo eta behin gizartearen aldarrikapen indartsu horri erantzun behar diogu. Ez da udalerrri honetako kontua bakarrik: goragoko esparruetan, baita Europa mailan ere, ahalik eta gardenen jarduteko eskatzen du jendeak. Jarduera publikoan ez dago herritarren kontrolpean egon behar ez duen esparrurik: ez dira bereizi behar boterearen egikaritza eta herritarrek horren gainean izan behar duten kontrola, hori baita demokraziaren oinarria.

-II-

Lege-testuak hasi dira gardentasun handiagoa egoteko eskaera hori jasotzen, gehienetan gizartearen aldarrikapenen eraginez. Horrela, bada, Europar Batasuneko araudiak nabarmen egin du aurrera administrazioaren kontratazioari dagokionez. Gehiegi sakondu gabe, esan dezakegu aurrerapen horrek beharrezko egingo duela kontratazioaren eremuko lege-testuak berriro ere aldatzea.

Europako Batzordeak berak ere gardentasun eta herritarren parte-hartze beharra antzeman du ingurumenaren arloan. Ondoko hauek hala jaso dute: Batzordearen 1997ko martxoaren 3ko 97/11/CE Zuzentaraua, zenbait proiektu publikok eta pribatuk ingurumenarengan duten eragina neurtzeari buruzko 85/337/CEE Zuzentaraua aldatu duena; Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2003ko urtarrilaren 28ko 2003/4/CE Zuzentarauak jendeari ingurumenaren arloko informazioa emateari buruzkoa; eta Europako Legebiltzarraren eta Batzordearen 2003ko maiatzaren 26ko 2003/35/CE Zuzentaraua, jendeak ingurumenari lotutako zenbait plan eta programatan parte hartzeari buruzkoa.

Europar Batasuneko kide diren estatuen lege-jarduerari dagokionez, berriz, gardentasunari buruzko zenbait lege onetsi dituzte. Duela gutxi gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea onetsi da, eta hurrengo egunean argitaratu. Lege horrek bi urteko trantsizioaldia (*vacatio legis*) badu ere, hari egokitzea ahalbidetzeko, komenigarria litzateke udal-mailan ere dagozkion arauak ematea, legea indarrean sartu aurretik. Izan ere, hala egiteak jendearen aldarrikapenei erantzuna ematea suposatuko luke, eta legealdi honetan gaia bideratuta uztea ekarriko luke.

Beste alde batetik, Arartekoak ere egin ditu gomendioak alor honetarako (12/2011 Gomendioa, abenduaren 28koa), gobernu irekirantz jo dezagun eta

jendeak aukera izan dezan egindakoa modu eraginkorrean aztertu eta ikuskatzeko.

Zeregin horretarako, baina, Basauriko Udala ez da zerotik hasi. Zenbait legetan jasotzen da herritarren parte-hartzea, aspaldidanik: Konstituzioan (9.2 artikulua), Autonomia Estatutuan (artikulu zenbaki berdina, e) atala, euskal botere publikoei zera agintzen diena: “herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere”), Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legean eta bere aldaketa guztietan, eta, bereziki, Basauriko Udalaren Parte-hartzeari buruzko Araudi Organikoan.

Aurreko legegintzaldian onetsitako Araudi Organiko horrek zenbait bertute ditu: lehenengo eta behin, gaia organikoki –egituraren aldetik– arautzearen aldeko apustu sendoa da; bigarrenik, herritarrak erabakiak hartzeko eta beraien eskubideak aintzatesteko prozesuetan nahasi nahi ditu, bai indibidualki, bai kolektiboki. Haatik, Araudi Organiko horrek gabezia garrantzitsuren bat ala beste ere badauka: bere izaera organikoa aintzat hartuta, egonkorra behar zuen, baina testuak ez zuen behar besteko adostasunik jaso.

Horrela, bada, indarreko testua berrikusteari ekin diogu: geneukana abiapuntutzat hartu eta, posible izan den neurrian, berau hobetzen saiatu gara. Horretarako, orain arte bizi izandakoak eta gaian adituak diren langileen iritziak bildu ditugu, eta eztabaida politikorako tarte handia hartu dugu, ia bi urtez luzatu dena. Proposamena, beraz, Testu Bateratua egitea da, aurreko testutik indarrean dagoena modu sistematikoan bateratuko duena onetsitako aldaketekin.

Azkenik, eta horren gainean zenbait iritzi eman badaiteke ere, nahiago izan dugu gardentasuna eta parte-hartzea testu bakarrean batzea, uste baitugu txanpon beraren aurkia eta ifrentzua direla.

-III-

Testu honek Atariko Titulua eta lau titulu nagusi ditu: I. Titulua gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa da; II. Tituluak herritarren eskubideak zerrendatzen ditu (norbanakoenak zein taldeka egikaritzeko direnak); III. Tituluak elkartegintza sustatu eta herritarren elkarleen eskubideak arautzen ditu; azkenik, IV. Tituluak parte-hartze organoak jasotzen ditu, Udalaren egituran uztartzen direnak.

I. Titulua berria da goitik behera, eta labur-labur jasotzen ditu nobedade handienak. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen taxuzko eta asmo handiko arautzea egiten du eta, horri lotuta, informazio estandar bat ezartzen du. Udalak, bere aldetik, konpromisoa hartzen du informazio estandar hori, ia-ia osorik, Transparencia Internacional GKEk gomendatutako adierazleen arabera argitaratzeko; adierazle horiek, berez, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak

jasotako legezko gutxienekoa gainditzen dute. Hemendik aurrera, udal-jarduera guztia –datu pertsonalei dagokien babesa emanda, noski– Interneten argitaratuko da. Horrela, bada, Udalaren webguneko Gardentasunaren Atarian gai hauei buruzko informazioa eskuratu ahal izango da, erraz eta doan:

- Erakundea eta bertako antolakuntza: gobernu organoak, gobernuaren egitura, kargu hautetsiak, udal-langileak eta jardueraremu bakoitzeko plangintza.
- Informazio garrantzitsua: osoko bilkuren, gobernu batzorde esanguratsuen, bozeramaileen batzordeen eta parte-hartzearen alorreko batzorde sektorialen eguneko gai-zerrendak eta aktak; ordenantzak eta araudiak –ez bakarrik indarrean daudenak, baita jendaurrean jarrita daudenak ere–; Udala tartean dagoen epai judicialak; eta Udalak onetsitako Kode Etikoa.
- Litzitazio-fasean nahiz formalizatuta dauden kontratu guztiak eta horien aldaketak, kontratu txikiak barne (hiru hilean behin argitaratuko dira); kontratazio-organo eta kontratazio-mahaien osaera, aktak eta kontratistekin izandako harremanak eta eragiketak; Udalak zein bere menpeko erakunde autonomoek sinatutako edozein motatako hitzarmenak; eta emandako diru-laguntzak.
- Hirigintzako plan nagusiak eta partzialak, obra publikoen litzitazioak, hirigintza-kudeaketako sistemak eta gaiari buruzko adierazle garrantzitsuenak.
- Ekonomiari, aurrekontuei eta kontabilitateari buruzko informazioa, zenbait alorretakoa: aurrekontuak eta horien aldaketak, alegazioak, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren xedeak, adierazle garrantzitsuenak –defizita edo superabita biztanleko, zerga-autonomia, zorpetzea– urteko kontuak eta baita ikuskaritzen txostenak ere (barruko ikuskaritzenak zein kanpokoan).
- Udal-ondarea: higiezinak, ibilgailuak eta balio historiko edo artistiko berezia duten ondasunak ere.
- Herritarrenganako arreta eta herritarrekin hartutako konpromisoak, parte-hartze alorrean ere bai (eztabaidarako foroak, parte-hartze guneak, udal kontseiluak, eta abar).

I. Tituluak beste alor batzuk ere arautzen ditu. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea herritarren eskubide subjektibotzat hartzen du eta informazioa berrerabiltzea aurreikusten du. Amaitzeko, gobernu onari buruzko arauak jasotzen ditu, eta gutxieneko edukia duen Kode Etikoa onetsi beharra ezartzen du. Gurean Kode Etikoa onetsita badago ere, horren beharra finkatu beharra dago: juridikoki loteslea izan dadila etorkizunera begira, eta betetzen ez bada, herritarrek aukera izan dezatela hori salatzeko.

-IV-

II. Tituluak herritarren eskubideak arautzen ditu, modu mailakatuagoan. Adibidez: entzunaldi publikoa egiteko eskatutako herritar erroldatuen

portzentajea % 3tik % 2ra jaisten da; laburtu egiten dira eskaerak egiteko eskubidea izapidetzeko epeak; herri-ekimenak 16 urtetik aurrerakoek sustatu ahal izango dituzte, herri-kontsulta erantsita daramatenean salbu; Udalean ordezkatura ez dauden talde politikoei mozioak aurkezteko aukera ematen zaie –batzuetan hainbat eztabaida eragin duen alor honetan, aniztasunaren aldeko keinu gisa–; Udalbatzari beste proposamen batzuk aurkezteko eskubidea arautzen da; eta, lehenengoz, udal-aurrekontuetan parte hartzeko eskubidea arautzen da. Eta, aipatutako guztia burutzeko, aurreikusi egiten da Bozera maileen Batzordeak hilerok hilerok herritarrek aurkeztutako kexa eta iradokizunen berri jasotzea, eta, horren bidez, herritarren eta haien ordezkari diren alderdi politikoen arteko elkarriketa sustatzea eta horien kontrol-lana ahalbidetzea.

III. Tituluak, zenbait doikuntza tekniko egin eta diru-laguntzak jasotzeko eskubidea hobeto arautzeaz gain, izaera juridikorik izan ez baina herritarrentzako garrantzitsuak diren gaietan parte-hartze esanguratsua izan duten (eta izaten jarraitzen duten) herritarren talde, plataforma eta koordinakundeak aintzatesten ditu: hirigintza arloan, ingurumenean, garraioan, kulturean, euskarari, eta abar. Elkargintza indartu eta sustatzeko modua arautzen da: laguntza eta aholkua emateko zerbitzuak, gizartearen elkargune eta sentsibilizazio guneak, eta are prestakuntza ere.

IV. Tituluak parte-hartze organoak arautzen ditu, Udalaren egitura organikoan txertatzen direnak. Arautze hau aurrekoa baino malguagoa da: Herriko Kontseilua egoteko aukera ematen du, Udalbatzak hala adosten badu, eta ohikoak diren beste kontseilu batzuk ere egoteko aukera jasotzen du: Iraunkortasun Kontseilua, Berdintasun Kontseilua, Planeamenduko Aholku Batzordea –arlotan lege autonomikoen aginduz sortutakoa– eta Euskararen Aholku Batzordea –sortu berri dena–. Hala eta guztiz ere, horiek sortzea hautazkoa da. Araudi honetan aurreikusitakoez gain, beste kontseilu batzuk ere egon daitezke, Udalbatzak gehiago osoz hala erabaki badu. Kontseilu horiek bizkortasun eta eraginkortasun printzipioen arabera funtzionatuko dute, gutxieneko eduki baten arabera eta autor–regulaziorako tartea utzita.

Xedapen osagarriak eta iragankorrek eta azken xedapenak ezartzen dituzte Araudi hau indarrean sartzeko aurreikuspen egokienak.

Adierazitako guztiagatik, Udalbatzak adostu du Gardentasunari, Gobernu Irekiari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Araudi Organiko hau onestea, jarraian adierazitako artikulua barne hartuko dituen.

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.- Xedea.

Araudi honen helburua da herritarrek udal jardueraren gardentasuna ezartzeko, informazio publikoa eskuratzeko eta udal kudeaketan parte hartzeko duten eskubidearen banakako edo taldeko erabilera arautzea, eskubide horiek eraginkorrak izateko parte-hartze eta informaziorako prozedura, bitartekoak eta moduak ezarrita, horiek guztiak udal gobernu irekiaren oinarriak diren aldetik.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

1. Araudi hau udal administrazioan eta bere erakunde autonomoetan aplikatuko da.
2. Arautuko diren eskubideak Basauriko herritar guztientzat eta egoitza Basaurin duten herritarren erakundeentzat izango dira.
3. Arau hauen ondorioetarako, herritartzat joko da Biztanleen Udal Erroldan inskribatutako edozein pertsona.
4. Arau hauen ondorioetarako, herritarren erakundetzat joko dira Elkarteen Udal Erregistroan inskribatutakoak, Araudi honen III. Tituluaren I. Kapituluaren ezarritako prozeduren arabera.

3. artikulua.- Printzipio nagusiak.

1. Basauriko Udalak bere jarduketa doituko du aplikatu beharreko arauetan ezarritako printzipio guztietara eta, gainera, araudi honek gobernu irekia eraginkortasunez ezartzeko funtsezkotzat jotzen dituen printzipioetara, hala nola:
 - a) Gardentasunaren printzipioa: Udalak aurrera egin behar du, kudeatzen dituen jarduera guztietan eta antolaketan bertan gardentasuna areagotzeko. Horrela, herritarrek Udalaren erabakiak, horiek hartzeko modua, zerbitzuak antolatzeko modua eta jardueren arduradunak ezagutu ahal izango dituzte, eta datu pertsonalak babesteari buruzko legedian ezarritako mugak baino ez dira egongo.
 - b) Publizitate aktiboaren printzipioa: administrazioak esku artean duen informazioa eta bere jarduketari buruzkoa antolatu, eman eta etengabe hedatu beharko ditu, modu egiazkoan eta objektiboan.
 - c) Herritarren parte-hartze eta lankidetzaren printzipioa: politikak diseinatzerakoan eta zerbitzuak kudeatzerakoan, Udalak sustatu behar du herritarrek banaka zein taldeka gai publikoetan parte hartzea, laguntzea eta horietan esku hartzea.
 - d) Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren printzipioa: Udalak, ematen dituen zerbitzuak ebaluatu, haien hutsuneak antzeman eta horiek zuzentzea ahalbidetzen duten prozesuak ezarri beharko ditu, herritarrei kalitatezko zerbitzu publikoak eskaini ahal izateko.

- e) Sinpletasun eta ulergarritasun printzipioa: Udalak izapideak pixkanaka-pixkanaka gutxitzea lortzearen alde lan egin behar du, eta, horretarako, hizkuntza ulergarria erabiltzea eta administrazio kargak desagertzea sustatzen duten prozesuak eta teknikak abiarazi beharko ditu.
 - f) Arau-kalitatearen printzipioa: ekimen arautzailea egikaritzekoan, Udalak zenbait printzipiori jarraituko die, hala nola: proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, eskuragarritasuna, sinpletasuna eta eraginkortasuna.
 - g) Modernizazio printzipioa: Udalak teknika informatiko eta telematikoen erabilera sustatu behar du, bere jarduera garatzeko eta erakundeetan bertan ezagutzaren kudeaketa ezartzeko eta hobetzeko.
 - h) Eskuragarritasunaren printzipioa: Udalak zainduko du bulegoetan, politiken diseinuan zein jarduketa guztietan eskuragarritasun unibertsalaren printzipioa bermatzen dela.
 - i) Neutraltasun teknologikoaren printzipioa: Udalak kode irekiko softwarearen erabileraren eta sustapenaren alde egingo du bere funtzionamenduan, baita arlo teknologikoan eta informatikoan estandar irekiak eta neutralak erabiltzearen alde ere, eta irtenbide ireki, bateragarri eta berrerabilgarri horiek bideratuko ditu aplikazio edo garapen informatikoen administrazio-kontratazioan.
2. Udalbatzak bere burua antolatzeko duen ahalmena erabilita ezarriko dituen partaidetzarako modu, bitarteko eta prozedurek inolaz ere ezin izango dituzte murriztu udal organo eskumendunei dagozkien erabakiak hartzeko ahalmenak, Legeak eta Udal Araudi Organikoak ezarritakoak.

4. artikulua.- Herritarren eskubideen zerrenda:

1. Basauriko herritar guztiek eskubidea daukate udal kudeaketan zuzenean parte hartzeko, banaka edo taldeka, elkartean eta herritarren bestelako erakundeen bidez.
2. Basauriko herritarrek eta herritarren erakundeek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legeria orokorrean aitortutakoez gainera, honako eskubide hauek ere izango dituzte, Araudi honetan ezarritakoaren arabera:
 - a) Administrazio jardueran gardentasuna eta informazioa egon dadila.
 - b) Entzunaldi publikoa izateko eskubidea.
 - c) Eskatzeko eskubidea.
 - d) Herri-ekimena gauzatzeko eskubidea.
 - e) Osoko bilkuraren bileretara aktiboki joan eta bertan mozioak, galderak eta eskaerak aurkezteko eskubidea.
 - f) Udal baliabideak baliatzeko eskubidea.
 - g) Herri-kontsulta gauzatzeko eskubidea.

- h) Udal eskumeneko zerbitzu publikoak eskuratzeko eskubidea.
- i) Informazio-batzordeen bileretara joateko eskubidea, indarreko legedian eta araudi honetan ezarritakoaren arabera.
- j) Udal-aurrekontuak prestatzen parte hartzeko eskubidea.

I. TITULUA

GARDENTASUNA, INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEA ETA GOBERNU ONA

I. KAPITULUA

PRINTZIPIO OROKORRAK

5. artikulua.- Gardentasunarekiko konpromisoa.

1. Basauriko Udalak bere jarduketan gardentasuna bermatuko du, baita informazio publikoa askatasunez eskuratzeko eta hori berrerabiltzeko eskubidea ere, horretarako beharrezko baliabideak (ahal dela, elektronikoak) ezarrita.
2. Aurreko hori konpromiso hirukoitz baten bidez bermatuko da:
 - a. Informazio publikoa eskuratzeko eta hori berrerabiltzeko.
 - b. Publizitate aktiboa, eta
 - c. Gobernu ona.

6. artikulua.- Eremu subjektiboa.

Titulu honen ondorioetarako, Basauriko Udalaren barnean daude erakunde autonomoak eta udal titulartasunpeko sozietateak, baita partaidetzazati handiena Udalarena den sozietateak ere.

7. artikulua.- Jarduketa printzipioen zerrenda:

- a) Informazioaren publizitatea: udal-administrazioan dagoen informazioa publikoa da. Berau eskuratzeko uka daiteke legeek eta Ordenantza honek beren-beregi ezarritako kasuetan bakarrik eta, betiere, ebazpen arrazoitu bidez; edozelan ere, ebazpen hori bide administratiboan zein judizialean aurkaratu ahal izango da.
- b) Publizitate aktiboa: Udalak bere ekimenez argitaratuko du gardentasuna bultzatu, jarduketaren kontrola ahalbidetu eta pertsonen eskubide politikoaren erabilera errazten duen informazioa, baita gizarterako eta ekonomiarako erabilgarria izan daitekeena eta, gutxienez, titulu honetan ezarritakoa ere. Nolanahi ere, gutxienezko maila horretatik aurrera, arloan espezializatuta dauden elkarte independente eta entzutezuek eta, bereziki, Transparencia Internacionalek gomendatutako adierazle guztiak argitaratzen saiatuko da.

- c) Berrerabiltze askea: hori eragozten duen bidezko arrazoia egon ezean, Udalak argitaratutako edo eskura jarritako edozein informazio berriro erabili ahalko da, sektore publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legean eta Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.
- d) Informazio irekia: informazioa lizentziarik gabe eta erabilgarri egongo da edozein pertsonarentzat, ahalik eta helburu gehienetarako eta ahal bezain laster. Informazio horrek ezaugarri hauek bete behar ditu: osatua izan behar du; jatorrizko iturritik eratorria izan behar du, eta ahalik eta zehaztasun handiena eduki; erakundeek beren-beregi kontrolatzen ez duten formatu batean egon behar du; arrazoizko egitura izan behar du - prozesatze automatikoa ahalbidetzeko-; eta ustiatua izateko erraztasunak eman behar ditu, aldez aurretik eraldatzen ibiltzeko beharrik gabe.
- e) Berehala eta baliabide elektronikoaren bidez eskuratzea: Udalak beharrezko baliabideak ezarriko ditu, pixkanaka-pixkanaka informazio publikoa baliabide elektronikoaren bidez eskuratu ahal izateko, aurretik eskabiderik egiteko beharrik gabe, eta berehala. Halaber, ahal dela, Udala informazioa formatu elektronikoan argitaratu eta eskura jartzen saiatuko da, herritarrek Udal Administrazioarekin komunikatzeko bidea hautatzeko duten eskubidearen kalterik gabe.
- f) Diseinuaren pribatutasuna: Udaleko informazio sistemen diseinua, garapena eta kudeaketa, datuak babesteko legedian zein Ordenantza honetan ezarritako eskuratze-mugak behar bezala aplikatu direla bermatuta egingo dira. Informazioa modu automatizatuan eta baliabide elektronikoaren bidez eskuratzea ahalbidetzeko asmoz, datuetan eta dokumentuetan muga horien aplikagarritasunari buruzko informazio zehatza gehituko da.
- g) Informazioaren kalitatea: herritarrei ematen zaien informazioak egiazkoa, frogagarria eta eguneratua izan beharko du. Argitaratu eta eskura jartzeko prozesu guztietan informazioaren atal arduraduna eta azken eguneratze-data adieraziko dira. Halaber, baliabideek horretarako aukera ematen duten guztietan, argitaratzeko ardura dutenek argitaratu beharreko informazioa egokituko dute, herritar guztiek erabat ulertzeko moduko egitura, aurkezpena eta testua bermatuta.
- h) Zerbitzatzeko konpromisoa: informazio publikoaren hornitzeak uneoro eraginkorra, azkarra eta kalitatezkoa izan beharko du. Horren harira, udal langileek herritarrei lagundu beharko diete, hala eskatzen dietenean, eta Udalaren eta informazioaren erabiltzaileen arteko berariazko komunikazio bideari eutsi beharko diote.

8. artikulua. Erantzukizunetik salbuestea.

Udala salbuetsita egongo da, beti, argitaratutako edo hirugarrenen eskura jarritako informazioaz edozein pertsonak edo erakundek egiten duen erabileraren gaineko erantzukizunetik.

II. KAPITULUA

INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

9. artikulua.- Eduki orokorra.

Herritar guztiek dute informazioa jasotzeko eskubidea, arrazoitutako eskabidea egin ondoren, bai eta udal jardueraren eta udal programa eta zerbitzuen berri izateko eskubidea eta udal agiritegiak kontsultatzekoa ere. Horretarako muga bakarrak izango dira Konstituzioak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legeria orokorrak eta datu pertsonalak babesteari buruzko legeriak ezarritakoak.

10. artikulua.- Informazio publikoa.

1. Basauriko Udalaren informazio publikoa izango da Udalak esku artean duena, baita eginkizunak gauzatzean prestatu edo eskuratu dena ere. Informazio horrek paperezko euskarria izango du, edo formatu elektronikoan egongo da; bigarren kasu horretan, datu edo dokumentu elektroniko itxura izango du.
2. Pertsona guztiek dute Basauriko Udalaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.
3. Eskuratzeko eskubidea banaka gauzatzeko, izapideak bideratu eta espedientea ebatzi beharko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean edo hori ordeztzen duen arauan ezarritakoaren arabera.
4. Eskuratzeko eskubidearen mugak, oro har, aplikatu beharreko araudi horretan ezarritakoak baino ez dira izango.

11. artikulua.- Datu pertsonalen babesa.

1. Eskatutako informazioak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikulua 2. atalak aipatutako babes bereziko datuak baditu, bakarrik baimenduko da horiek eskuratzeko ukitutako pertsonaren berriazko eta idatzizko baimena badago, eskuratzeko eskatu aurretik pertsona horrek datu horiek jendaurrean jarri ezean.

2. Informazioak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikulua 3. atalari aipatutako babes bereziko datuak edo arau-hauslearentzako ohartarazpen publikorik ez dakarten zigor edo administrazio arloko arau-hausteak egiteari buruzko datuak baditu, bakarrik baimenduko da horiek eskuratzea ukitutako pertsonaren berariazko baimena badago edo lege mailako arau batek eskuratze hori babesten badu.
3. Oro har, eta dagokion kasu zehatzean datu pertsonalen babesa edo Konstituzio bidez babestutako interes publikoari buruzko beste eskubide batzuk gailendu ezean (horiek argitaratzea galaraziko lukete eta), organoaren antolaketari, funtzionamenduari edo jardura publikoari lotutako identifikazio datuak bakarrik dituen informazioa eskuratzea baimenduko da.
4. Eskatutako informazioak babes bereziko daturik ez badu, eskabidea jasotzen duen organoak informazioa eskuratzea baimenduko du, informazioa hedatzeko dagoen interes publikoa eta eskatutako informazioak agertzen dituen datuen jabeen eskubideak -bereziki, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea- behar bezala aztertu eta gero.

Azterketa hori egiteko, organo horrek honako irizpide hauek hausnartuko ditu bereziki:

- a) Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57. artikuluan ezarritako epeak igaro izanak ekarritako ondorioak ukitzen dienei ahalik eta kalte txikiena eragitea.
 - b) Eskatzaileek beren eskabidea justifikatzea: eskubide bat egikaritzen ari direla, edo ikertzaileak izan eta informazioa xede historiko, zientifiko edo estatistikoekin eskuratu nahi dutela adieraztea.
 - c) Ukituen eskubideei ahalik eta kalte txikiena eragitea, dokumentuek horien identifikazio datuak bakarrik baldin badituzte.
 - d) Ukituen eskubideei ahalik eta berme handiena ematea, dokumentuko datuek haien intimitateari edo segurtasunari eragin badiezaioke edo adingabeei buruzkoak badira.
5. Ezin izango da aplikatu aurreko idatz-zatietan ezarritakoa, eskuratzea datu pertsonalak bereizi ondoren egiten bada. Izan ere, horrela, ukitutako pertsonak lege orokorraren arabera identifikatzea galarazi egiten da.
 6. Datu pertsonalak babesteko araudia, eskuratze-eskubidea egikaritutara bereganatutako datuen ondoko tratamenduari ere aplikatuko zaio.

III. KAPITULUA

INFORMAZIOA BERRERABILTZEA

12. artikulua.- Baldintza orokorrak.

1. Udalak argitaratutako edo eskura jarritako informazio guztia berrerabili ahalko da, aurretiazko baimenaren beharrik gabe, informazio horretan berariaz kontrakoa adierazi ezean.
2. Basauriko Udalaren informazio publikoa berrerabiltzen duen edozein pertsonak edo erakundek honako baldintza orokor hauek bete beharko ditu informazio hori erabiltzerakoan:
 - a) Informazioaren esanahiari eustea, berezko izaera kendu edo aldatu gabe, eta haren esanahiari buruzko interpretazio okerrak saihestuta.
 - b) Iturria Basauriko Udala dela aipatzea, eta inolaz ere ez adieraztea Udalak berrerabiltzea dakarren proiektua edo ekintza babestu, lagundu edo oinarritzen duenik, nahiz eta babes, laguntza edo lankidetzat hori egon daitekeen, Udalaren berariazko erabaki batean oinarrituta. Kasu horretan, hala adierazi ahalko da, bertan aipatu bezala.
 - c) Informazioaren kalitatea bermatzen duten elementuei eustea, baldin eta berrerabilerarekin bateragarriak badira. Aipatu beharko dira, bereziki, azken eguneratze-data eta berrerabilerari aplikatu beharreko baldintzak.
3. Informazio publikoa argitaratzeak edo eskura jartzeak berekin dakar Udalak berrerabilera garatzeko behar diren jabetza intelektualeko eskubideak doan eta modu ez eskusiboan lagatzea, izaera unibertsalarekin eta Legeak baimendutako gehienezko eperako.

Udalaren informazio publikoan oinarritutako zerbitzugintzak berrerabilera agenteek xedatutako tarifak eta prezioak jasotzea ekar dezake.

13. artikulua.- Hirugarrenen eskubideak.

1. Pertsona edo erakunde batek berrerabilerak uki dezakeen eskubideren bat badu datu edo dokumentu zehatz batzuen gainean, Udalak bakarrik baimenduko du berrerabilera, eskubideen titularra aurretik adostasuna eman ondoren.
2. Udalak datu edo dokumentu horiek argitaratu edo eskura jartzen baditu, adieraziko du horiek ezin direla aurreko baimenik gabe berrerabili, horien gainean hirugarren eskubideak egoteagatik.

IV. KAPITULUA PUBLIZITATE AKTIBOA

14. artikulua.- Gardentasuna antolaketa, Udalbatza eta plangintzaren informazioan.

Udalak honako adierazle edo *item* hauek argitaratuko ditu, ondore horretarako sortutako Gardentasunaren webgunean:

1. Gobernu-organoen osaera:

- 1.1. Udalbatza.
- 1.2. Alderdi politikoak.
- 1.3. Udal Gobernu Batzarra.
- 1.4. Informazio Batzordeak.
- 1.5. Erakunde autonomoetako zuzendaritza kontseiluak.
- 1.6. Udal sozietate publikoetako administrazio kontseiluak.
- 1.7. Udalez gaindiko beste erakunde batzuetako (patronatuak, partzuergoak eta abar) partaidetza.
- 1.8. Udalaren webgunean alderdi politikoentzat erreserbatutako ataletarako loturak.

2. Udalaren egiturari eta langileei buruzko informazioa:

- 2.1. Organigrama politikoa eta arloetako ordezkariak.
- 2.2. Udaleko lanpostuen zerrenda eta mailen araberako ordainsariak.
- 2.3. Konfiantzako langileen zerrenda.
- 2.4. Erakunde autonomoen eta sozietate publikoen oinarritzko datuak eta bertako kudeatzaileen curriculumak.
- 2.5. Erakunde autonomoetako eta sozietate publikoetako lanpostuen zerrenda eta mailen araberako ordainsariak.

3. Udaleko kargu hautetsiei eta langileei buruzko informazioa:

- 3.1. Alkatetzako titularraren eta zinegotzien ikasketa- eta lanbide-datuak.
- 3.2. Alkatetzako titularraren eta zinegotzien helbide elektronikoak.
- 3.3. Sindikatu-hauteskunderi buruzko informazioa: liberatuak eta horien ordainsariak.
- 3.4. Onetsitako lan-eskaintzei buruzko eta hautaketa-prozesuetako oinarrii buruzko informazioa.

4. Udaleko kargu hautetsiei eta langileei buruzko informazioa:

- 4.1. Goi-kargudunen eta udal arduradun nagusien ordainsariak.
- 4.2. Konfiantzako langileak eta horien ordainsariak.
- 4.3. Kargua uzteagatiko kalte-ordainak, baldin badaude.

- 4.4. Bateragarritasuna baimentzeari edo aintzatesteari buruzko ebazpenak.
- 4.5. Udaleko goi-kargudunen ondasunen eta jardueren erregistroa.
- 4.6. Goi-kargudunek kargua utzitakoan jarduera pribatuak gauzatzea baimentzen duten ebazpenak.
- 4.7. Osoko bilkuren, batzordeen edo bestelakoen bileretara joateagatiko dietak edo kobrantzak, eta kontzeptu horiengatik urtero jasotzen den zenbatekoa.
- 4.8. Alderdi politikoetarako diru-kopuruak, Kontu-hartzaitzak horiek ikuskatzen dituen adierazita.
- 4.9. Eginkizuna gauzatzeko, udalkideen eta funtzionarioen esku jarritako baliabideak.

5. Plangintzari buruzko informazioa:

- 5.1. Gobernuaren plan estrategikoa.
- 5.2. Tokiko Agenda 21.
- 5.3. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia.
- 5.4. Berdintasun Plana.

15. artikulua.- Gardentasuna garrantzi juridikoa duen informazioan.

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo *item* hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Osoko bilkurak:

Osoko bilkuren eguneko gai-zerrendak.
Osoko bilkuren aktak.
Osoko bilkuren ebazpenak.
Osoko bilkuren grabazioak.

2. Gobernu Batzarraren bilera erabakitzaileak:

Eguneko gai-zerrendak.
Aktak.
Erabakiak.

3. Bozeramileen Batzarrak:

Eguneko gai-zerrendak.
Aktak.

4. Informazio Batzordeak:

4.1. Aktak.

5. Partaidetzarako sektore-kontseiluak:

Zeintzuk dauden.
Partaidetzarako kontseiluen bileretako aktak.

6. Ordenantzak eta araudiak:

Indarrean dagoen araudia.

Ordenantzen eta araudien proiektuak, jendurrean jartzen diren unetik aurrera.

Udal araudia onesteko edo aldatzeko espedienteei buruzko memoriak eta txostenak, jendurrean jartzen diren unetik aurrera.

Arloko legediaren arabera, jendurrean jarri behar diren bestelako dokumentuak.

Udalak onetsitako Kode Etikoa edo Gobernu Onaren Kodea.

7. Txostenak:

Udalak agindutako kanpoko txostenak.

8. Udalaren parte-hartzea izandako epai judizialak.

16. artikulua.- Gardentasuna kontratu, hitzarmen eta diru-laguntzetan.

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo *item* hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Kontratatzeko prozedurak:

Kontratu guztiak, lizitazioan daudenak zein gauzatu direnak, Transparencia Internacionalek gomendatutako adierazleak jasota.

Gauzatutako kontratu aldaketak.

Kontratu txikiak argitaratzea, gutxienez, hiru hilean behingo zerrendaren bidez.

2. Kontratazio mahaiak:

Osaera, hautatzeko modua eta deialdiak.

Kontratazio mahaien aktak.

3. Kontratatetikiko harremanak eta eragiketak:

Udaleko hornitzaileekin egindako eragiketen zerrenda.

Esleipendun garrantzitsuenekin egindako eragiketen zerrenda, Transparencia Internacionalek gomendatutako adierazleak jasota.

Esleipenei buruzko datu estatistikoak kontratazio prozedura bakoitzeko.

4. Sinatutako mota guztietako hitzarmenak eta kudeaketa aginduak.

5. Emandako diru-laguntzak eta laguntzak.

17. artikulua.- Gardentasuna hirigintzan eta herri lanetan:

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo *item* hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Plan nagusia, plan partzialak, araudia eta hirigintza hitzarmenak:
 Indarreko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia (HAPN) eta hirigintza arauak.
 HAPNrako onetsitako aldaketak.
 Hirigintza hitzarmenak.
 Plan partzialak.
 Hirigintza kudeaketaren arloan indarrean dagoen araudia (aurrean aipatutakoaz gain).
 Webguneko hirigintzari buruzko atal orokorra.

2. Herri lanetako lizitazioak:
 Prozedura irekiaren bidez lizitatutako obren proiektuak, baldintza agiriak eta lizitazio irizpideak.
 Prozedura irekiaren bidez lizitatutako obren proiektuen aldaketak.
 Prozedura irekiaren bidez lizitatutako obren lizitazioetara aurkeztutako enpresen zerrenda.
 Uneko obrei buruzko informazioa: helburuak, arduraduna, kontratista, aurrekontua, epea, eta abar.
 Obra garrantzitsuenak amaitzeko aurreikusitako data zehatzen zerrenda.
 Amaitu diren eta amaitzeko dauden obrei buruzko sei hilean behingo informazioa: txostenak, jakinarazpenak, prentsa-oharrak...

3. Hirigintzari eta herri lanei buruzko adierazleak:
 Azpiegituretako inbertsioa biztanleko.
 Hirigintzatik ondorioztatutako diru-sarreraren ehunekoa.
 Hirigintzatik ondorioztatutako gastuen ehunekoa.

18. artikulua.- Gardentasuna ekonomia- eta aurrekontu-informazioan.

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo *item* hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Aurrekontuak:
 Udalaren aurrekontuak, haien partidak eta betearazpena jakinarazita.
 Udal erakundearen aurrekontuak.
 Jendaurrean jartzeko aldiaren aurrekontuei egindako alegazioak.
 Aurrekontu aldaketak.
 Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuen betetze-maila.

2. Aurrekontu, finantza eta zorpetze adierazleak:
 Superabita edo defizita biztanleko.
 Zerga autonomia.
 Zerga arloko diru-sarrerak biztanleko.
 Gastuak biztanleko.
 Inbertsioa biztanleko.
 Ordaintzeko batez besteko aldia.

Kobratzeko batez besteko aldia.
Udal zorraren zenbatekoa.
Udal zorrak urte batetik bestera izandako bilakaera.
Zorpetzea biztanleko.
Zorpetze erlatiboa.

3. Urteko kontuak eta fiskalizazioa:

Kontuen Batzorde Bereziari aurkeztu beharreko kontu orokorra.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako eta sozietate publikoetako kanpoko edo barneko organoei egindako ikuskapenei buruzko txostenak.

19. artikulua.- Gardentasuna ondare informazioan.

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo *item* hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Higiezin propioen, alokatuen, okupatuen edo Udalari atxikitakoen (bulegoak, lokalak, etxebizitzak eta abar) zerrenda.
2. Udalaren ibilgailuak (ibilgailu propioak edo alokatuak).
3. Balio historiko, artistiko edo ekonomiko handia duten ondasun higigarriak.
4. Ondasun eta eskubideen inbentarioa.

20. artikulua.- Gardentasuna herritarrekiko harremanetan.

Gai horri dagokionez, Udalak honako adierazle edo *item* hauek argitaratuko ditu Gardentasunaren webgunean:

1. Herritarrentzako arretari buruzko informazioa:
Kultur eta kirol establezimenduetako ordutegiak eta prezioak.
Erabilgarri dauden online izapideak.
Udalaren web-mapa.
Webguneko auzokideen elkarteei buruzko atala.

2. Herritarrekiko konpromisoak:
Eztabaida foroak.
Parte-hartze Araudia argitaratzea.
Parte-hartze kontseiluei buruzkoak argitaratzea eta horiei buruzko informazioa ematea.
Iradokizun eta erreklamazioen postontzia.
Zerbitzuen katalogoa edo gutuna, eta ezarritako konpromisoen betetze-maila.

V. KAPITULUA
GOBERNU ONA

21. artikulua.- Jokabide kodea.

1. Basauriko Udalaren Udalbatzak bere kide guztientzako Jokabide Kodea onetsiko du, baina norberak bere gain hartu beharko du hori errespetatzeko eta betetzeko konpromisoa.
2. Jokabide Kodea eta banakako atxikipenak Udalaren Gardentasunaren webgunean argitaratuko dira.

22. artikulua.- Gutxieneko edukia.

Jokabide Kodeak honako printzipio hauek, gutxienez, betetzen direla bermatuko du:

1. Legea eta gainerako antolamendu juridikoa errespetatzea.
2. Gai publikoen kudeaketako gardentasuna, eraginkortasun eta efikazia printzipioen arabera eta interes orokorra betetzeko asmoz.
3. Zerbitzu publikorako arduraldia, edozein interes-gatazka egotekotan jarduteari uko eginda.
4. Inpartzialtasunaren printzipioa errespetatzea, beste edozein interes partikularrekin zerikusirik ez duena.
5. Tratu berdintasuna, bereizkeriarik gabea, eginkizunak gauzatzean.
6. Betebeharrak betetzeko orduan jarduketa arduratsua izatea eta zerbitzu publikoen kalitatea sustatzea.
7. Jokabide egokia eta herritarrekiko tratu arretatsua.
8. Ekintzengatik eta erabakien erantzule izatea.

II. TITULUA **HERRITARREN ESKUBIDEAK**

I. KAPITULUA **HERRITARRENTZAKO LAGUNTZA AKTIBOA**

23. artikulua.- Laguntza aktiborako eskubidea.

1. Aurreko tituluan ezarritakoaz gain, Udalak ahalik eta informazio zabalena eskainiko du bere jarduerari buruz, udal planekin zerikusia duten proiektu eta jarduerak kudeatzen dituzten erakunde eta

elkarteen jarduerari buruz eta herritar guztiek herriko egunerokotasunea duten partaidetzari buruz.

2. Herritar guztiek dituzte, Udalarekiko harremanen alorrean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legeria orokorrak ematen dizkien eskubideak. Hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenek egiteko proposatutako proiektu, jarduera edo eskabideei ezarritako betekizun juridiko edo teknikoei buruzko informazio eta orientazioa eskuratzeko eskabideari dagokionez, honako eskubideak izango dituzte herritarrek:
 - a) Udalarekin posta elektronikoz bidez harremanetan jartzekoa, Herritarrei Informazioa eta Arreta emateko Bulegoaren bitartez edo webgunean identifikatutako arlo, atal edo bulegoaren bitartez, aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, egokitzat jotzen den gaia azalduta.
 - b) Bere eskaerari lotuta dagoen erantzun arrazoitua zentzuzko epean eskuratzekoa; epe hori, nolana ere, hamar egun baino gutxiagokoa izango da, galdera egin zenetik zenbatzen hasita.

Herritarrei posta elektronikoz emandako erantzuna ez da loteslea izango, araudiak kontrakoa ezarri ezean. Hala ere, ezin izango da inolako jokaerarik zigortu eta ez da erantzukizunik sortuko, jokaera hori Udalak berak bide hori erabilita eman duen araudiaren zentzuzko interpretazioak babesten badu.

3. Herritarrei Informazioa eta Arreta emateko Bulegoa egongo da, herritarrei oro har harrera egiteko. Bertan, eskatutako gai guztiei buruzko informazioa emango du Udalak, bide posible guztiak erabilita (aurrez aurre, telefonoz, telematikoki, eta abar). Bulego horrek progresiboki bereganatuz joango den eta tramitazio laburtua izan dezaketen espediente eta gaiak kudeatuko ditu, eta, hala badagokio, dagokion bulegora bideratuko ditu herritarrak.

II. KAPITULUA.

ENTZUNALDI PUBLIKOA IZATEKO ESKUBIDEA

24. artikulua.- Edukia.

1. Entzunaldi publikoaren bitartez herritarrek, elkarteek edo udal erakundeek jardueraren bat egiteko edo erabaki zehatzen bat hartzeko proposa diezaiokete udal administrazioari; halaber, arazoren bat azaldu edo Udalaren interes orokorreko gairen bat azal dezakete.

2. Entzunaldi publikoa ahoz eta ekintza bakarrean egingo da, batzar irekian eta bertan interesa duten herritar, erakunde edo talde guztiak daudela.
3. Administrazioak ofizioz ekinda edo herritarrek eskatuta egin ahal izango da deialdia.

25. artikulua.- Herritarrek eskatuta egindako deialdia.

1. Udal administrazioak ofizioz egin ditzakeen deialdiei kalterik egin gabe, honako hauek ere entzunaldi publikoa deitzeko legitimazioa izango dute:
 - a) Udal erroldan inskribatutako pertsonen % 2, 16 urtetik gorakoak badira, dagokion sinadura-orriaren bitartez.
 - b) Herri Elkarteetan Udal Fitxategian inskribatutako herritarren elkarteak, taldeak edo erakundeak.
 - c) Herriko Kontseilua, eta Basauriko edozein auzokide kontseilu edo elkarte.
2. Posible da aurreko zenbakian ezarritako legitimazioa barruti edo auzo zehatz bati egokitzea, gaiak berari bakarrik eragiten badiu. Horrelakoetan, legitimazioa aztertu beharreko gaiak eragindako lurralde-eremu zehatzari baino ez zaio egokituko.
3. Eskabidearekin batera, aztertuko diren gaiei buruzko txosten edo memoria aurkeztuko da, eta Udalari egindako proposamena zein den ere bai.
4. Edozein herritar, elkarte edo erakundek, nahiz eta aurreko zenbakian ezarritako legitimazio-betekizunak ez izan, entzunaldia eskatu ahal izango du, politika- edo kudeaketa-erantzukizunak dituzten Udalbatzako kideek entzun dezaten. Entzunaldia arduradun horien agendaren arabera izango da, eta eurek aukeratuko dute noiz egingo den. Nolanahi ere, bermatu egingo da herritar guztiek izatea legegintzaldian behin Udalbatzako kide batek entzunak izateko eskubidea.

26. artikulua.- Funtzionamendua.

1. Dokumentazioa jaso eta egiaztatu ondoren, alkateak edo berak eskuordetutako zinegotziak entzunaldi publikoaren deialdia egingo du, gehienez hilabeteko epean. Gutxienez astebete lehenago egingo da deialdia, eta entzunaldirako leku, egun eta ordua, gai-zerrenda eta erantsitako dokumentazioa zehaztuko dira, beharrezko izatekotan.

2. Alkatea edo hark bere orde zinegotzia izango da batzarburua. Udaltzako idazkariak edo eskuordetutako funtzionarioak egingo ditu idazkari-lanak, akta idazteko.
3. Lehenengo, aztertuko den gaiaren txostena azalduko da, gehienez ere minutu batez.
4. Gero, Udaleko arduradun politikoak hitz egin eta bere iritzia azalduko du, bidezkoa bada, gehienez ere 15 minutuz.
5. Ondoren, bertaratutakoek hitz egingo dute, bakoitzak gehienez ere bost minutuz. Denbora hori murriztu ahal izango da, hitza eskatu duten kopurua zein den, eta kontuan hartuta saioak, gehienez ere, ordu bi iraungo duela, oro har.
6. Arduradun politikoaren erantzuna, hala badagokio.
7. Ondorioak, hala badagokio.

III. KAPITULUA ESKATZEKO ESKUBIDEA

27. artikulua.- Titularrak.

Pertsona guztiek dute Udaleko gobernuari edo bere erakunde autonomoei, euren eskumeneko gaitan, eskaerak edo eskabideak egiteko eskubidea, baita udal jarduerari buruzko argibideak eskatzeko eskubidea ere. Muga bakarrak legeek ezarritakoak izango dira.

28. artikulua.- Eskubidea egikaritzeko modua.

Eskaera idatziz egingo da, eta bere egiazkotasuna egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bitarteko erabilita egin ahal izango da, telematikoki ere bai. Ez da ezberdintasunik egongo gai horrek eskatzaileari bakarrik eragiten badiu ala interes kolektibo edo orokorreko gaia bada.

29. artikulua.- Eskubidea ez onartzeko arrazoiak.

Udalak, arrazoitutako ebazpen bitartez, ukatu ahal izango du eskabidea izapidetzeko onartzea, honako kasuren bat gertatzen bada:

- a) Eskaeraren helburua ez bada Udalaren eskumenekoa.
- b) Eskaerak berriazko administrazio-izapidea badu ezarrita. Horrelakoetan, uko egiteko ebazpenak bidezko tramite zehatza eta aplikatu beharreko araudia zeintzuk diren zehaztuko du.
- c) Aurretiaz eduki bereko eskaerak aztertu badira. Horrelakoetan, uko egiteko ebazpenak aurreko eskaeren emaitza zehaztuko du.

30. artikulua.- Osteko izapidetzea.

1. Udalak proposamena edo kexa hartu duela adierazi beharko du, jaso eta hurrengo zazpi egunen barruan.
2. Udalak proposamena edo kexa onartezintzat jo ahalko du modu arrazoituan, hori aurkeztu eta hurrengo hamabost lanegunen barruan.
3. Udalak proposamenari edo kexari erantzun beharko dio hogeita hamar eguneko gehieneko epean, ez bada onartezintzat jotzen.
4. Ebazpenak hartutako neurriak edo hartzea aurreikusi diren jarduerak azaldu beharko ditu edo, bestela, egindako eskaera aintzat ez hartzeko arrazoiak zeintzuk diren.
5. Kapitulu honetan aurreikusi ez den guztirako, eskatzeko eskubidea arautzen duen araudi nagusian xedatutakoari jarraituko zaio.

IV. KAPITULUA HERRI-EKIMENERAKO ESKUBIDEA

31. artikulua.- Edukia.

Herri-ekimenaren bitartez, herritarrek udal eskumeneko eta interes publikoko jardueraren bat egiteko proposa diezaiokete Udalari. Besteak beste, honako ekimen hauek egin daitezke:

- a) Bere eskumenen eremupeko araudi proiektuak, zerga-ordenantzak eta prezio publikoen ordenantzak salbu.
- b) Erabaki-proposamenak.
- c) Interes publikoko gaietan jarduteko proposamenak, finantziazio-proposamena azalduta, hala badagokio.
- d) Herritarrei galdetzeko proposamena, Titulu honen VII. Kapitulan xedatutakoak arautuko duena.

32. artikulua.- Legitimazioa.

Udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea duten Basauriko herritarrek gauzatu ahalko dute ekimena.

Udalerrian erroldatutako 16 urtetik gorakoek % 10ek, gutxienez, sinatu beharko dituzte ekimen horiek.

Ekimenak herri-kontsultarako eskaera badakar berekin, udalerrian erroldatutako 18 urtetik gorakoek % 10ek, gutxienez, sinatu beharko dute.

33. artikulua. Izapidetzea.

1. Eskaera idatziz egingo da, bertan eskatzailea eta edukia jasota. Ordezkarri bat izendatuko dute, eta harekin egingo dira izapideak. Argi azaldu beharko da zein den eskatzen den jarduera, zein bitarteko ekonomiko edo giza baliabide jotzen diren beharrezkotzat eta, hala badagokio, zeintzuk diren eskatzaileak ematea aurreikusi dituenak. Tokiko herri-kontsulta egiteko proposamena egin ahal izango dute; hori, toki-araubidearen oinarritzko legeetan eta araudi honetan ezarritako prozedura eta betekizunei jarraituta izapidetuko da.
2. Eskabideak aurreko artikuluan ezarritako legitimazio-baldintzak betetzen baditu, honela jardungo da:
 - a) Izapidetzeko onartu bezain laster, idazkia udal taldeetako bozeramaileei helaraziko zaie.
 - b) Dagokion arloak horri buruzko txostena egin beharko du.
 - c) Nolanahi ere, Udaleko Idazkaritzak eskaeraren legezkotasun-txostena egin beharko du. Ekimenak eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrei eragiten badie, Kontu-hartzaitzak egingo du txostena.
 - d) Gai horretan eskumena duen informazio batzordeak ekimenari buruzko irizpena emango du, premiazkotasuna tarteko denean salbu: kasu horretan Udalbatzari dagokio irizpena ematea.
 - e) Ekimenak osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu beharko dira, gaiari buruzko eskumena duen organoak ebatzi ahal izango baditu ere.
3. Eskatzaileek Araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte edo eduki bereko gaiak ebatzi badira, eskabidea ez onartzeko aukera egongo da, arrazoitutako ebazpenaren bitartez, betiere.
4. Ekimena aurkeztu zenetik 3 hilabeteko epean ez balitzaio osoko bilkurari aurkeztuko, eskabidea gaitzetsi egin dela jo ahal izango dute eskatzaileek, Administrazio Prozedura Erkidearen araudian aurreikusitako ondorioetarako.
5. Udalak herri-ekimena onesten badu, jendaurrean jakinaraziko du nola eta zein datatan bideratuko den, eta, horretarako, dagokion ekonomia partida erabiliko du.

OSOKO BILKURARA AKTIBOKI JOATEKO ESKUBIDEA

34. artikulua.- Osoko bilkurari mozioak aurkezteko eskubidea.

1. Herritarren interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten udal erakunde, elkarte edo herritar guztiek eta udal erakundearen ordezkariak duten zein ez duten alderdi politiko guztiek dute euren intereseko udal gaiei buruzko mozioak aurkezteko eskubidea.
2. Mozioak idatziz aurkeztuko dira Udalaren Erregistro Nagusian, eta azalpena edo justifikazioa eta hartu beharreko erabaki proposamena jasoko dituzte. Talde politikoetako bozeramaile guztiei bidaliko zaie mozio horren kopia.
3. Alkateak mozioak izapidetzea baztertu ahal izango du, Udal Araudi Organikoaren 71.3 artikuluko c) atalean ezarritako prozedurari jarraituta. Baztertzekotan, arrazoituta ebazpena eman eta mozia aurkeztu duen pertsonari jakinaraziko zaio.
4. Mozia baztertu ez bada, Alkateak erabakiko du gai horretan eskumena duen batzordeko idazkariari helaraziko zaion, bidezko irizpena eman dezan, ala zuzenean osoko bilkurari helaraziko zaion.
5. Mozia izapidetu ostean, osoko bilkuraren gai-zerrendan sartuko da, dagokion informazio batzordearen irizpenarekin batera, hala badagokio. Mozia gai-zerrendan sartu bada, entzunaldia emango zaio beraz proposatu duenari, eta horrek Alkateari eskatu ondoren. Hala, bada, ordezkari bakar batek ahoz azaldu ahal izango du mozioaren eduki eta egokitasunari buruz duen iritzia, Alkateak adierazitako denboran, eta gai-zerrendan azaldutako proposamenaren eztatua eta bozketa egin aurretik. Ondoren egingo diren eztatua eta bozketa Udalbatzako kideek baino ezin izango dute parte hartu eta, beraz, bertaratutako ikus-entzuleek eta mozia proposatu duen pertsonak ezin izango dute parte hartu, osoko bilkuraren funtzionamendurako arau orokorreari jarraituta.
6. Udal Araudi Organikoan osoko bilkuraren funtzionamenduak arautuko ditu mozioaren eztatua eta bozketa.

35. artikulua.- Herritarren kolektiboak aurkeztutako proposamenak.

1. Erakundearen Udal Erregistroan inskribatutako herritarren elkarteek, edozein herritarrek edo herritarren taldeek eskatu ahal izango dute osoko bilkuraren eguneko gai-zerrendan proposamen bat gehitzeko, udalerriaren erroldatutako 16 urtetik gorakoaren % 10en sinadura egiaztagarriak aurkezten badituzte.

2. Baldintza horiek betetzen badira, proposamena osoko bilkuraren hurrengo ohiko osoko bilkurarako gai-zerrendan txertatuko da, eta Udal Araudi Organikoaren arabera bideratuko da.
3. Proposamen bat baztertzen bada, ezin izango da gai berari buruzko beste bat aurkeztu urtebeteko epean, datu *garrantzitsu* berriekin osatu ezean.

36. artikulua.- Eskakerak eta galderak egiteko eskubidea.

1. Herritarrek, elkarteek eta udal erakundeek, era berean, eskaera eta galderak egin ahal izango dizkiete Udalaren gobernu organoei. Eskaera eta galdera horiek Udal Araudi Organikoaren 71. artikuluko 6. eta 7. zenbakietan ezarritako helburua izango dute, oro har.
2. Auzo-ekimeneko eskaera eta galderak Udaltzaren Erregistro Nagusian aurkeztutako idazki bitartez aurkeztuko dira beti. Ahoz ere egin ahalko dira, Alkatetzak eskatuta; kasu horretan, Alkatetzak berak ebatziko du eskaera onargarria den ala ez, tratatzeko ordena zein den, hartzailea nor den eta zein erantzun emango zaion.
3. Idatziz egindako eskaerak eta galderak hurrengo osoko bilkuran aztertuko dira, gutxienez osoko bilkura hori baino zazpi astegun lehenago aurkeztu badira. Bilera egiteko zazpi astegun baino gutxiago falta direla aurkeztu balitz, eskaera edo galdera osoko bilkuraren horren hurrengo bileran edo hurrengoan aztertzea erabaki ahal izango du Alkatetzak. Hala eta guztiz ere, Alkatetzak, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren eta arrazoitutako ebazpen bitartez, auzo-ekimeneko eskaera edo galderaren bat ez onartzeko aukera izango du.
4. Ez dira onartuko eskaera edo galdera pertsonalak, errespetugabeak edo talde politiko zehatzei egindakoak.
5. Eskaera edo galdera idatziz egin duenak osoko bilkuran entzuna izateko eskubidea izango du. Eskubide hori eraginkorra izan dadin, entzunaldia emateko eskatu beharko dio Alkatetzari, bilera hasi baino lehen, eta Alkatetzak bidegabe jotako arrazoiren bat badago bakarrik ukatu ahal izango zaio. Baimena emanaz gero, eskaera edo galdera egin duenak bere iritzia azalduko du alkateak adierazitako denboran, dagokion eztabaida egin aurretik. Eztabaidan, egotekotan, Udaltzako kideek baino ezin izango dute parte hartu eta, beraz, bertaratutako ikus-entzuleek eta eskaera edo galdera egin duen pertsonak ezin izango dute hitz egin, osoko bilkuraren funtzionamenduari buruzko arau orokorrak aplikatuta.

6. Auzo-eskaerari buruzko eztabaida egin ahal izango da osoko bilkuran, baina eztabaida horretatik ez da nahitaez erabaki bat irten behariko; beraz, baliteke osoko bilkurak jakinaren gainean dagoela edo eskaera jasotzat duela baino ez adieraztea.
7. Auzo-ekimenaren ondoriozko galderei hartzaileak erantzungo die. Hartzailea alkatea izan ez arren, alkateak berak ere erantzun ahal izango die.

VI. KAPITULUA

UDAL BALIABIDEAK ESKURATZEKO ESKUBIDEA

37. artikulua.- Edukia.

1. Herritar, elkarte edo udal erakunde guztiek dute erabilera orokorreko udal baliabideak baliatzeko eskubidea, duten xedearen arabera. Eskubide honen muga bakarrak dira dauden espazio- eta denbora-mugak eta udal ordenantzetan ezarritakoak.
2. Zerbitzu publiko bati atxikitako udal instalazioak barne-araubideko araudietan, udal araudietan edo dagokion erakunde autonomoaren erabilera kudeatzen duten araudietan xedatutakoaren arabera erabiliko dira.
3. Udalak herritar guztiek informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea sustatuko du eta, horretarako, teknologia horiek erabiltzeko puntu publikoak eskainiko ditu ekipamendu-sarearen eta udal bulegoen bitartez.

VII. KAPITULUA

HERRI-GALDEKETARAKO ESKUBIDEA

38. artikulua.- Edukia.

1. Udalak, Alkatetzaren bitartez, osoko bilkuraren gehiengo osoaren aldeko botoaz erabakia hartu eta Nazioko Gobernuak baimena eman ondoren, herri-galdeketa egin ahal izango ditu udal eskumeneko eta tokiko izaerako gaiei buruz, herritarren interesetarako garrantzi berezia badute eta, betiere, Toki Ogasunari buruzko gaiei buruz izan ezik.
2. Kontsulta horren emaitza ez da inola ere loteslea izango Udalarentzat.
3. Aurrekoa alde batera utzita, Herriko Kontseiluak edo sektore kontseiluek proposatuta nahiz norbere ekimenez, eta betiere interes

publikoak hala gomendatzen badu, Udalak herritarren iritzia bildu ahal izango du inkesta zein iritzi-azterketen bitartez, gaiak jendaurrean azalduta, teknologia berriak erabilia edo herritarren iritzia jakiteko beste edozein bide erabilia.

VIII. KAPITULUA

UDAL AURREKONTUAK PRESTATZEN LAGUNTZEKO ESKUBIDEA

39. artikulua.- Xedea.

1. Herritarren interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten udal erakunde, elkarte edo herritar guztiek eta Udalean ordezkariak duten zein ez duten alderdi politiko guztiek dute udal aurrekontuak prestatzen laguntzeko eskubidea.
2. Eskubide hori bermatzeko asmoz, Udalak araudi bat ezarriko du, prozesuan parte hartzeko moduak, prozesuaren jarraipena eta kontrola, erabaki organoak eta eremuak eta gauzatze edo instituzionalizazio maila zehazten dituena.
3. Halaber, goian aipatutako eskubidea erabat bete dadin, beharrezko baliabide teknikoak eta ekonomikoak bermatuko dira.

IX. KAPITULUA

HERRITARREN ESKUBIDEEN DEFENTSA ETA IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIOEN ORGANOA

40. artikulua.- Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak aurkeztea.

1. Herritar, elkarte edo udal erakunde guztiek jo ahal izango dute Iradokizun eta Erreklamazioen Organora, bidegabeko tratua eman dietela edo legezko eskubide edo interesak murriztu zaizkiela azaltzeko, betiere eskumena duen organoan legez ezarritako prozedura agortu bada.
2. Iradokizun eta erreklamazio guztiek eragingo dute espedientea irekitzea, organoaren titularrak bideratuko duena.
3. Erreklamazio, kexa edo iradokizunak ez du inola ere administrazio-errekurtsoaren izaera izango, ez eta ekintza zibilak edo lan-ekintzak egin aurreko erreklamazioaren, erreklamazio ekonomiko administratiboaren edo ondare-erantzukizuneko erreklamazioaren izaera ere. Baztertu egingo dira eduki ekonomikoak duten erreklamazioak, irekitako prozeduraren bati buruzkoak direnak edo udal ekintzaren bat berrikusteko helburua dutenak.

4. Kexa, erreklamazioa edo iradokizuna jaso ondoren, onartu ez dela adierazi ahal izango da honako kasu hauetan, eta arrazoitutako ebazpenaren bitartez:
 - a) Legezko interesa dagoela ikusten ez denean.
 - b) Erreklamazio anonimoak direnean. Hori dela eta, telematikoki bidalitako erreklamazioak aitortutako sinadura elektronikoa eduki beharko dute.
 - c) Fede txarra edo prozeduraren gehiegizko erabilera antzematen denean, horrek administrazio-zerbitzuei nahasmena eragin ahal badie.
 - d) Izapidetuz gero beste pertsona batzuen legezko eskubideak kaltetuak izan daitezkeenean.
 - e) Oinarririk ez dutela nabarmena denean.
 - f) Eduki bereko gaiak ebatzi direnean.
 - g) Udal eskumenekoak ez diren gaiak direnean.
 - h) Udal organoen kontrol publikoari buruzkoak direnean.
 - i) Partikularren artean izapidetzen ari diren auziei buruzkoak direnean.
 - j) Prozedura irekita dagoenean edo administrazio-errekurtsoa edo errekurtsio judiziala hasita dagoenean.
5. Kexa izapidetzeko onartzen bada, eragindako zerbitzuaren txostena eskatuko da; txosten hori 15 eguneko epean egin beharko da, egoki jotzen den dokumentazio guztia erantsita.
6. Erreklamazio, kexa edo iradokizuna, eragindako zerbitzuaren txostenarekin eta erantsitako dokumentazioarekin batera, hala badagokio, Kexa eta Iradokizunen Organo Bereziari bidaliko zaio, txostena egin dezan eta bidezko gomendioak eman ditzan.

41. artikulua.- Antolaketa eta funtzionamendua.

1. Kexa eta Iradokizunen Organoko titularra udal langilea izango da eta, ahal dela, funtzionarioa. Autonomia izango du udal zerbitzuei dagokienez, eta Modernizazio Arloaren mende egongo da funtzionamendu-mailan, baina ez du hierarkia-mendekotasunik izango bere zereginak garatzeko.
2. Honako hauek dira Kexa eta Iradokizunen Organoaren xedeak:
 - a) Herritarren kexa, iradokizun eta erreklamazioak jaso eta bideratzea.
 - b) Herritarrek proposatutako ekimen eta aukerak aztertzea.
 - c) Udal administrazioak izan ditzakeen urritasunak antzeman eta behar bezala zuzentzeko proposamenak egitea.

- d) Ahal den neurrian, Basauriko herritar guztien beharrizanak ase eta eraginkortasunik handiena lortzea baliabide publikoen kudeaketan.
3. Organo Bereziak bidezko informazio guztia bildu ahal izango du administrazio-zerbitzuetan. Udalbatzaren zerbitzura dauden langile guztiek nahitaez eman beharko diote eskatutako lankidetzara organo horri.
 4. Halaber, Kexa eta Iradokizunen Organoak, erreklamaziogileari eta eragindako zerbitzuko arduradunari edo bidezkotzat jotzen duen beste edonori entzunaldia ematea erabaki ahal izango du.
 5. Kexa eta Iradokizunen Organo Bereziak, gaia aztertu ondoren, ondorioak azaldu (betiere arrazoiak agertuta) eta eskumena duen udal organoari helaraziko dizkio, kontuan har ditzan. Ondorio horiek ez dira lotesleak izango. Erreklamazio, kexa edo iradokizunak eragindako organoari jakinaraziko zaizkio, alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan 10 eguneko epean.
 6. Organo Bereziaren ondorioak eta eragindako organoaren alegazioak, horrelakorik egotekotan, Udalbatzari eta erreklamazio-egileari jakinaraziko zaizkie.
 7. Bozera maileen Batzarrari ere herritarrek aurkeztu dituzten kexen eta iradokizunen berri emango zaio, horiek jaso eta bideratzeaz arduratzen diren teknikariek egindako hileko txostenen bidez.

42. artikulua.- Ordezko zuzenbidea.

Organo Bereziaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko gainerako gaiak dagokienez, indarreko Udal Araudi Organikoan xedatutakoari jarraituko zaio.

III. TITULUA ELKARTEGINTZA SUSTATZEA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

43. artikulua.- Aintzatespen orokorra.

1. Basauriko herritarrei aintzatetsitako eskubideak eta ekintzak herritarren erakundeek ere gauzatu ahalko dituzte beren ordezkarien bidez.

2. Udalak elkartegintza haztea bultzatu eta lagunduko du. Horretarako, hainbat baliabide tekniko eta ekonomiko erabiliko ditu, adibidez: diru-laguntzak, hitzarmenak eta laguntza profesionala.
3. Gizarte-dinamizatzailleak diren aldetik, eta herritarren erakundeek gure udalerrian aurrera eramandako eginkizun garrantzitsua aintzatetsita, Udalak bultzatu egingo ditu gizarte zibilak espazio publikoak kudeatzeko esperientziak, elkartegintzako autogestio esperientzien bidez, eta horiek indarreko legediaren bidez arautuko dira.

44. artikulua- Xedea.

Titulu honen xedea da Udalak herritarren erakundeekin izango dituen harremanen araubide juridikoa arautzea, baita horien eskubideak, Herritarren Elkartearen Udal Fitxategia eta horren ondorioak arautzea ere.

45. artikulua.- Definizioak.

1. Araudi honen ondorioetarako, herritarren erakundeak dira legez osatutako elkarte edo talde guztiak, indarreko legeriaren arabera osatuak, herritarren interes orokor edo sektorialak defendatzea helburu dutenak, interes hori dena delakoa izanda ere: ekonomikoa, soziala, kulturala, zientifikoa, hezitzailea, aisiakoa, kirolekoa, gazteriarekin lotutakoa edo antzekorik.
2. Halaber, talde egonkorak ere herritarren erakunde bezala inskribatu ahal izango dira. Talde egonkortzat hartuko dira baliabide ekonomiko edota pertsonalak elkarrekin jartzeko konpromisoa dutenak, irabazi-asmorik gabe, interes orokorreko helbururen bat lortzeko, adibidez: lagunarteak, koadrilak, eta abar, nahiz eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatuta egon ez.

46. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Araudi honen aplikazio-eremuan daude aurreko artikuluan definitutako elkarteak edo taldeak, honako hauek izan ezik:

- a) Merkataritza-zuzenbidearen mendeko erakundeak eta, oro har, helburu nagusia etekin ekonomikoak izatea dutenak, gero etekin horiek bazkideen artean banatzeko.
- b) Alderdi edo talde politikoak, enpresa-elkarteak eta erakunde sindikalak.
- c) Aurreko letran aipatutako erakundeekin lotura duten egoitza sozialak edo lokalak dituzten elkarteak edo erakundeak.
- d) Elkarte edo erakunde erlijiosoak.
- e) Profesionalen elkargoak.

- f) Edozein administrazio publikoren mendeko erakunde autonomoak edo merkataritza-sozietateak.

47. artikulua.- Printzipio nagusiak.

1. Elkarteek eta herritarren erakundeek askatasun osoz eta beraien borondatez emango dute izena Elkarteen Udal Fitxategian. Ezin izango da inolako elkarte, talde edo erakunderik derrigortu erregistro horretan izena ematera, ezta bertan egotera ere.
2. Elkarte edo talde bat kide izatea ez da, inondik inora, Udalak baztertzeko edo aldeko edo mesedeko tratua emateko arrazoia izango.

48. artikulua.- Araubide juridikoa.

Honako hauek arautzen dituzte elkarteak eta herritarren erakundeak:

- a) Izaeraren arabera aplikatu dakiekeen legeria orokorrak, barne-estatutuek eta gobernu-organismoek balioz onartutako erabakiek arautzen dituzte osaketa, izena ematea eta barne araudia.
- b) Gainerakoekin izango dituzten harremanak, aldiz, ezar dakiekeen araudi zibilak arautzen ditu.
- c) Udalarekin izango dituzten harremanak, araudi honetako eta Udal Araudi Organikoko xedapenek arautzen dituzte.

II. KAPITULUA

HERRITARREN ERAKUNDEEN ESKUBIDEAK

49. artikulua.- Eskubideak.

1. Elkarteen Udal Erregistroan inskribatutako herritarren elkarteek honako eskubide hauek izango dituzte, indarreko Udal Araudi Organikoan eta Araudi honetan ezarritako terminoetan:
 - a) Osoko bilkurari mozioak, galderak eta eskaerak aurkezteko eskubidea.
 - b) Osoko bilkuraren bileretako gai-zerrenda jasotzeko eskubidea, hala eskatuz gero, eta ahalik eta arinen.
 - c) Informazio batzordeen edo batzorde teknikoaren bileretan horiek ukitzen dituzten gaietan hitz egiteko eskubidea, Araudi honetan ezarritako moduan.
 - d) Eskubideak egiteko eskubidea, eskatzeko eskubidea erabilia.
 - e) Entzunaldi publikoa izateko eskubidea eta kudeaketa-erantzukizuna duten Udalbatzako kideek zuzenean eta banan-banan entzuna izateko eskubidea.

- f) Erabilera orokorreko udal baliabideak baliatzeko eskubidea, duten xedearen arabera.
 - g) Herri-ekimenerako eskubidea.
 - h) Araudi honetan berariaz ezarriko diren beste eskubide guztiak, herritarren parte-hartzea errazteko direnak.
2. Gainera, elkarte horiek honako eskubide hauek izango dituzte, Araudi honetan ezarritako terminoetan:
- a) Diru-laguntzak jasotzekoa.
 - b) Udalaren lokalak eta komunikabideak erabiltzekoa.
 - c) Udalaren argitalpenak jasotzekoa.

50. artikulua.- Diru-laguntzak.

1. Udalaren baliabideek ahal duten neurrian emango dira diru-laguntzak, diru-laguntzak emateko indarreko ordenantza orokorrean xedatutakoaren arabera, Oinarri Orokorretan xedatutakoaren arabera eta, dagokionean, Udalbatzak onetsitako berezitasunen arabera, baita Aurrekontua Egikaritzeko Udal Arauan ezarritako irizpideen arabera ere.
2. Udalak diru-laguntza horiek emateko urteko deialdia egingo du. Deialdi horrek diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoa zehazteko irizpideak adierazi beharko ditu.
3. Udal aurrekontuetatik diru-laguntzak jaso dituztenek nahitaez zuritu beharko dute jasotako funtsen erabilera, diru-laguntza bakoitzeko araudian ageri den epean.
4. Diru-laguntza jaso izanak ez die diruz lagundutakoei inolako eskubide subjektiborik emango, etorkizunean beste diru-laguntza batzuk jasotzeari begira.
5. Udalak ez ditu diruz lagunduko funtzionamendu demokratikoa bermatzen ez dutela, kideekin aldizka hauteskundeak izaten ez dituztela edo beraien helburu soziala betetzen ez dutela badakien erakundeak.
6. Basauriko Udalak, bere eskumenen eremuan, lankidetzeta-hitzarmenak ezarri ahalko ditu interes sozialeko programetarako, Herritarren Elkarteen Udal Erregistroan inskribatutako taldeekin.
7. Arlo horretan, Basauriko Udalaren Urteko Diru-laguntzak arautzen dituzten Oinarrietan, Basauriko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

51. artikulua.- Udalaren lokalak eta komunikabideak erabiltzea.

1. Udalaren lokalak erabiltzeko, irabazi-asmorik gabeko elkarteei udal lokalak prekarioan lagatzeko oinarriak arautzeko indarreko ordenantza arautzailean xedatutakoa hartuko da kontuan. Dena dela, erabiltzaileek modu arduratsuan erabiliko dute lokala, eta elkartea izango da instalazioetan gertatutako narriaduren erantzule.
2. Udal komunikabideak erabiltzeko ez da mugarik egongo, non eta batek baino gehiagok aldi berean erabili nahi ez duen; horrelakoetan Udalak izango du erabiltzeko lehentasuna. Nolanahi ere, komunikabide horiek elkarteak antolatutako ekimenak edo jarduerak hedatzeko baino ez dira erabiliko.
3. Udal bitarteko publikoak erabiltzeko, horretarako ezarrita dauden araei jarraituko zaie, eta, horrelakorik ez balego, Udalari idatziz eskatu beharko zaio, aldez aurretik, dagokien zerbitzuek ezarritako epean.
4. Udalak abala edo bermea ezarri ahal izango die erabiltzaileei, udal bitartekoak egoki erabiliko dituztela ziurtatzeko.

52. artikulua.- Argitalpenak jasotzea.

Herritarren elkarteek Udalaren argitalpenak, aldizkakoak edo bestelakoak, jasotzeko eskubidea dute, baldin eta erakundearentzat interesgarria baldin bada, bere helburu sozialak kontuan izanda. Hori doan izango da, Udaleko organo eskudunek berariaz hala adierazten dutenean.

III. KAPITULUA

UDAL ONURA PUBLIKOKO ERAKUNDEAK

53. artikulua.- Definizioa.

Onura publikoko erakundeak dira beraien estatutuetako helburuak alor honetakoak dituztenak: gizalegea, hezkuntza, zientzia, kultura, kirola, osasuna, humanitate arloa, soziala, garapenerako lankidetzak, haurren babesa, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eta tolerantziaren sustapena, ingurumenaren zaintza, ekonomia edo ikerketaren sustapena, euskararen sustapena, boluntariorikaren sustapena, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa edo legeetan aurreikusitako udal eskumenen osagarria izango den beste edozein; hori guztia, jarduera jarraitua izaten badute auzo-elkartegintzan eta herritarren parte-hartzea sustatzeko interes publikoko gaietan.

54. artikulua.- Aitortzeko prozedura.

Honako hau izango da erakundea udal onura publikoko aitortzeko prozedura:

1. Interesa duen erakundearen ordezkariaren idatziarekin hasiko da, eta honako hauek bidaliko dira, idazkiarekin batera:
 - a) Eskaera zertan oinarritzen den.
 - b) Herritarren Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzeko datuak eta elkarteen estatutuak.
 - c) Eskabidea egin aurreko bi urteetan egindako jardueren memoria.
 - d) Kide-kopuruari buruzko egiaztagiria.
 - e) Erakundearen zerbitzu eta jardueren onuradunak diren pertsonen kopuru eta ezaugarriak, dituzten giza baliabideak eta bitarteko materialak eta eskuratu nahi den aitortza behar bezala balioztatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein informazio.
2. Eskabide horri buruzko informazioa emango dute gai horretan eskumena duten atalek; informazio hori dagozkion prozedurazko alderdietara (aurkeztutako agiriak zuzendu, ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez, etab.) eta lege adierdietara mugatuko da.
3. Espedientea dagokion Informazio Batzordeari igorriko zaio eta honek dagokion irizpen-proposamena aurkeztuko du, Udalbatzak horri buruzko ebazpena eman dezan. Bere irizpenean, Informazio Batzordeak eskabidea baloratuko du aurreko atalean adierazitako irizpideen arabera.
4. Udal onura publikoko aitortza egokia den baloratzeko funtsezko irizpideak honako hauek izango dira:
 - a) Erakundea Basauriko herritarrentzat interes publikoko eta sozialekoa izatea.
 - b) Erakundearen helburu soziala eta egindako jarduerak.
 - c) Ordezkagaitasun-maila.
 - d) Udal intereseko jardueretan duten parte-hartze maila.
 - e) Aurrekari historikoak edota erakundeak udalerrian duen ibilbidea.
5. Udalbatzak erabakiko du erakundea onura publikoko aitortu ala ez. Hala aitortzekotan, administrazioak ofizioz sartuko du Udal Fitxategian, eta horren publizitatea egingo da Udalaren webgunean.

55. artikulua.- Eskubideak.

Onura publikoko aitortzak, Udalak kasu bakoitzerako zehaztutako onurak izango ditu, hala nola:

- a) Bere dokumentu guztietan *“Basauriko Udalak onura publikoko aitortua”* aipamena erabiltzea.
- b) Izaera fiskaleko salbuespenak, hobariak eta bestelako onurak, denak indarrean dagoen legediaren arabera adostuta.
- c) Bere jarduerarekin lotura zuzena duten xedapen orokorrak egitean entzunak izatea, baita jarduera horientzat garrantzitsuak diren programak egitean ere.
- d) Diru-laguntzak banatzeko lehentasuna.
- e) Toki-administrazioaren laguntza teknikoa eta aholkularitza jasotzea.

56. artikulua.- Betebeharrak.

1. Honako hauek izango dira onura publikoko aitortutako erakundeen betebeharrak:
 - a) Urteko kuotak aurkeztu beharko dituzte urtero Udalean, gehienez hiru hilabeteko epean, amaitu denetik aurrera zenbatzen hasita. Hala badagokio, jaso diren udal funts publikoen aplikazioa zuritu beharko da. Halaber, aurreko urtean egindako jarduerak deskribatzen dituen memoria ere aurkeztu beharko da.
 - b) Basauriko Udalak eskatutako txosten eta dokumentazioak eman beharko ditu, bere helburuak betetzeko egin dituen jardueri buruzkoak badira.
 - c) Datuak eguneratuta izan beharko ditu Udal Fitxategian.
2. Onura publikoko aitortpena baliogabetu egin ahal izango da, dela Herritarren Elkarrekin bere betebeharrak behin eta berriro eta modu larrian bete ez dituelako, dela aitortpena egitea eragin zuten inguruabarrak aldatu direlako. Horrelakoetan, erakunde interesdunari entzunaldia emango dion espedientea izapidetuko da.

IV. KAPITULUA

HERRITARREN ERAKUNDEEN UDAL FITXATEGIA

57. artikulua.- Erregistroa sortzea.

1. Herritarren Elkarrekin Udal Fitxategia sortu da, Herritarrei Arreta Emateko eta Modernizazio Arloak eramango duena.
2. Udal Fitxategiak ez du zerikusirik legez ezarritako erregistroekin, alegia, izaera orokorreko elkarteak, erakundeak eta taldeak eratzeko eta aitortzeko erregistroekin.

3. Helburu bi ditu Herritarren Elkartearen Udalen Fitxategiak:

- a) Alde batetik, inskribatutako erakundeak aintzat hartu eta Araudi honen nahiz indarrean dagoen legediak ematen dizkien eskubideez baliatzeko duten aukera bermatzea udal eremuan.
- b) Eta bestetik, Udalak jakin ahal izatea zenbat erakunde dauden, zein helburu, ordezkagaitasun, interes eta onura publiko duten, elkartegintza sustatzeko udal politika zuzena egin ahal izateko.

58. artikulua.- Inskribatzearen ondorioak.

1. Araudi honetan edo Udalen Araudi Organikoan herritarren elkartei aitortutako eskubideak, Herritarren Elkartearen Udalen Fitxategian inskribatuta daudenek bakarrik eskatu ahal izango dituzte.
2. Udalen administrazioak, gainera, udalaz gaindiko elkarte orori aitortu ahal izango dio, bere iritziz interes publiko nabarmena baldin bada, Araudi honetan inskribatutako elkartei aitortutako eskubideetako edozein, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan xedatutakoaren arabera.

59. artikulua.- Inskribatzeko eskubidearen titularrak.

Elkartearen Udalen Erregistroan inskribatu ahal izango dute 26. artikuluan definitutakoak eta 27. artikuluan kanpora utzita ez daudenak.

60. artikulua.- Izena emateko prozedura.

Herritarren Elkartearen Udalen Fitxategian inskribatzeko eskabideak Udalen Erregistroan aurkeztuko dira. Eskabidearekin batera, agiri hauek ere aurkeztuko dira, originalak edo Idazkaritza Nagusiak erkatutako kopiak (Araudi hau indarrean jarri denean inskribatutakoak salbu):

- a) Erakundearen estatutuak edo indarrean dituzten funtzionamendu arauak. Beste erregistro publiko batzuetan inskribatuta ez dauden taldeen kasuan, kide guztiek sinatutako adierazpen arduratsua, honakoak zehaztuz: erakundearen sorrera, bere helburuak, gobernu-organoak eta taldea ordezkatzeko duen pertsona fisiko arduraduna, haren datu pertsonalekin batera.
- b) Inskribatuta egotekotan, dagokion erregistro publikoan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiri edo diligentzia, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan edo antzekoren batean duen inskripzio-zenbakia zehazten duena.

- c) Zuzendaritza karguak dituzten pertsona fisikoak, euren helbideak eta harremanetarako telefono-zenbakiak egiaztatzeak akta edo ziurtagiria. Inskribatu gabe dauden taldeen kasuan, arduradunaren datu pertsonalak eta harremanetarako telefono-zenbakia.
- d) Erakundearen helbidea eta, hala badagokio, egoitza soziala(k).
- e) Inskribatutako erakundearen IFZ. Inskribatu gabeko taldeen kasuan, arduradunaren IFZ.
- f) Jardueren programa.
- g) Eskabidea egin denean duten kide-kopuruaren ziurtagiria.
- h) Jarduteko lurralde-esparrua.
- i) Erakundearen urteko aurrekontua.

61. artikulua.- Epea.

Agiriak zuzen egonez gero, izena emateko eskabidea egin zenetik hamabost eguneko epean jakinaraziko dio Udalak erakunde interesdunari bere inskripzio-zenbakia. Une horretatik aurrera, alta emanda dagoela ulertuko da, ondorio guztietarako.

62. artikulua.- Aldaketak.

1. Inskribatutako elkarteek datuak aldatuz gero, Erregistroari jakinarazi beharko diote, aldatu eta hilabeteko epean. Aurrekontua eta urteko jardueren programa urtarrilean jakinaraziko dira; halaber, kide-kopuruari buruz eguneratutako egiaztatzea ere emango da.
2. Betebehar horiek behin eta berriro bete gabe geratzen badira eta Udal Administrazioak horri buruz egindako eskariei kasurik egiten ez bazaie, Alkatetzak Fitxategian baja emateko ebazpena eman dezake.
3. Baja izan daiteke:
 - a) Borondatezkoa, elkarteak eskatu badu. Bertako legezko ordezkariak egin beharko du.
 - b) Administrazioak ofizioz izapidetutakoa. Nolanahi ere, erakundea desegin bada edo erakundeak Udalarekin zituen betebeharrak bete ez badira gertatuko da hori, aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera.

63. artikulua.- Publikotasuna.

1. Herritarren Elkartearen Udal Fitxategia publikoa da. Pertsona edo erakunde publiko edo pribatu orok du Herritarren Elkartearen Udal

Fitxategia kontsultatzeko eskubidea, legeak babestutako datu pertsonalak izan ezik.

2. Udalaren webgunean, inskribatutako erakundeen eta horien datuen zerrenda zehatza azalduko da, Legeak babestutako datuak izan ezik.
3. Fitxategia Herritarrei Arreta eta emateko Arloan kontsultatu ahal izango da, eskatzaileak aukeratutako bitarteko hauetakoren baten bidez:
 - a) Dagozkien idazpenen kopia arrunten bidez.
 - b) Programa informatikoa erakutsita eta, hala badagokio, bertan dagoen informazioa inprimatuta.
 - c) Edukiaren ziurtagiria igorrita, dagozkien tasak aurrez ordaindu ondoren.
 - d) Idazpenei buruzko agiriak erkatuta

64. artikulua.- Fitxategia eramateko modua.

Herritarren Elkartearen Udal Fitxategia euskarri informatikoan kudeatuko da. Hala ere, euskarri fisikoan dokumentatuko da, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean indarrean dauden idazpen guztiak azalduta. Horiek urtero baliozkotuko dira, eskumena duen funtzionarioak egindako diligenzia bidez, eta liburu bakoitzaren hasieran orri-kopurua, idazpenak zer eperri dagozkion eta idazpenen hasierako eta amaierako zenbakiak adieraziko dira.

V. KAPITULUA

NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO KOLEKTIBOAK, PLATAFORMAK ETA HERRITARREN KOORDINAKUNDEAK

65. artikulua.- Antolaketa sozialeko modu berriak aintzatestea.

1. Basauriko Udalak antolaketa sozialeko modu berriek ematen duten laguntza garrantzitsuaren jabe da, Herritarren Elkartearen Udal Erregistroan inskribatu gabeko herritarren plataformen eta kolektiboen bidez (lagunartekak, koadrilak, gazteen lonjak, txoko gastronomikoak...). Horretarako, Herritarren Parte-hartze Arloan horiekin komunikazio eta lankidetzak arinak izateko beharrezko baliabideak prestatuko dira, baina kolektiboek hala eskatu beharko dute beren-beregi, gauzatu dadin.
2. Informazio, komunikazio eta jardueren hedapen ondorioetarako, behar bezala erregistratutako elkartearen izaera bertsua izango dute. Horrela adierazi beharko diote Udalari: Udalbatzarekin harremanetan egoteko ordezkaritza hautatu beharko dute, eta Udalari horren berri eman, Herritarrei Informazioa eta Arreta emateko Bulegoaren bidez.

VI. KAPITULUA

ELKARTEGINTZARAKO LAGUNTZA

66. artikulua.- Laguntza eta aholkularitza zerbitzuak.

1.- Udalak elkartegintzaren hazkundera bultzatu eta lagunduko du. Horretarako, hainbat baliabide tekniko eta ekonomiko erabiliko ditu, adibidez, diru-laguntzak, hitzarmenak eta laguntza profesionala, aurrekontu-baliabideen mugen barruan.

2.- Basauriko Udalak, bere aurrekontu-baliabideen barruan, honako zerbitzu hauek emango dizkie Herritarren Elkartearen Udala Erregistroan inskribatutako erakundeei, nortasun juridikorik gabeko kolektiboari, plataformei, herritarren koordinakundeei eta udalerriko herritar guztiei:

- a) Herritar berrientzako aholkularitza.
- b) Elkarte eta erakunde sozialetarako aholkularitza eta informazioa.
- c) Herritarren arteko bitartekaritza, bake epaitegien eskumenak ordeztu gabe.

67. artikulua.- Topaguneak.

Basauriko Udala elkartegintzarako eta herritarren kolektiboetarako topaguneak egon daitezela bermatzen saiatuko da, betiere, Udala eraikin, Lokal eta Instalazioen erabilera arautzen duen Ordenantzaren arabera.

68. artikulua.- Sentsibilizazio soziala.

1. Udalak, bere aurrekontu-baliabideen barruan, balio solidarioak, demokratikoak eta bizitza publikoan parte hartzekoak garatzeko informazio kanpainak sustatu eta gauzatuko ditu, bizikidetzaren funtsezko ardatzak diren aldetik.
2. Kanpainak Basauriko herritar guztiei zuzenduko zaizkie.

69. artikulua.- Prestakuntza.

Udalak, bere aurrekontu-baliabideen barruan, elkarteek prestakuntza ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak egiten lagunduko du, jardura horiek honako alde hauek sustatzen badituzte:

- a) Udala erakundearen funtzionamendua eta toki-erakundeak eraentzen dituzten legedia, araudia eta arauak ezagutzera ematea.
- b) Herritarren parte-hartzea, horretarako dauden organoen eta bideen bidez, demokrazian sakonduz eta demokrazia ordezkatzaileraren parte hartzeko demokraziarekin osatuta.

- c) Udalerriko elkartegintzaren kudeaketa ona, hazkundera, dinamizazioa eta indarra.
- d) Elkartu gabeko herritarrek udalerriko bizitza publikoan parte hartzeko interesa agertzea, bai erakundeen bidez, bai herriaren martxa onean banaka esku hartuta.

IV. TITULUA

PARTAIKETA-ORGANOAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

70. artikulua.- Definizioa.

1. Udaltzaren informazio, kontsulta, lankidetzaren, deliberamendu eta aholkularitzako organoak dira, aurrekontu parte-hartzaileak prestatzeko funtsezko tresnak dira, eta proposamenak eta iradokizunak egiteko gaitasuna dute. Gizarte-eragileek, udal taldeek eta erakundeek osatzen dituzte eta, horien bitartez, gauzatu egiten da auzo-taldeak interes publiko lokaletako gaien kudeaketan parte hartu eta horietara hurbiltzea.
 - a) Euren gai-eremuko ekimen, iradokizun eta proposamenak aurkeztea, dagozkien arlo, atal eta udal erakundeek azter ditzaten.
 - b) Lankidetzaren eta aholkularitza ematea euren jardueraren-eremuko gaiarekin zerikusia duten azterlan, programa eta proiektuak aurkezterakoan.
 - c) Udal informazioa jaso eta zerikusia duten herritarren erakundeetara jakinarazi eta hedatzea.
 - d) Ukituak diren edo interesa duten pertsonen eta erakundeek udal jarduketako arlo bakoitzaren kudeaketan zuzenean parte hartzea sustatzea, eta ondorio horretarako udal jardueren beharrezko informazio, suspergarri eta jarraipen mekanismoak ezartzea.
 - e) Kontseiluaren xede den eremuan diharduten erakundeek (publikoak edo pribatuak) artean elkartegintza, lankidetzaren eta koordinazioa sustatu eta bultzatzea.
 - f) Udaltzaren aholkularitza ematea horrek Kontseiluaren jarduketaren eremuan egiten dituen jarduketara buruz, Udaltzaren aurkezten dituen gaiak eztabaidatu eta baloratuta, bereziki, urteko programen informazioa, jarraipena eta ebaluazioa, eta proposamenak prestatuta.
 - g) Sektorerari lotutako azterlan, txosten eta jarduerak sustatzea.

- h) Udal politika eta jarduera integralen aplikazioa sustatzea, pertsonen eskubideak aldezte aldera.
 - i) Udal aurrekontuak prestatzen parte hartzea.
2. Horiek sortzea hautazkoa da. Araudi honetan aurreikusitakoez gain, beste kontseilu batzuk ere egon daitezke, betiere Udalbatzak, gehiengo osoaren aldeko botoaz, hala erabakitzen badu.
 3. Arintasunaren eta operatibitatearen printzipioek zuzenduko dute kontseiluen funtzionamendua.

71. artikulua.- Osaera.

1.- Parte-hartze kontseiluak honako hauek osatuko dituzte, gutxienez:

- a) Batzordeburua: alkatea edo alkateak horretarako eskuordetutako arlo edo atal bakoitzeko zinegotzi arduraduna.
- b) Atalari lotuta dauden edo arloan interesa duten Herritarren Elkarteen Udal Erregistroan inskribatutako herritarren elkarteetako ordezkariak (gehienez, 5).
- c) Banakako herritarrak, 16 urtetik gorakoak, dagokion kontseiluaren arloan interesa dutela adierazten dutenak. Gehienez, 3 izango dira, eskatzaile guztien artean egindako zozketaren bidez hautatutakoak. Parte hartzeko eskabideak idatziz (paperean edo posta elektronikoaren bidez) bidaliko dira Parte-hartze Arlori, datu pertsonalak (NA, helbidea eta izen osoa) eta interesatzen zaion kontseilua adierazita.
- d) Idazkaritza: Alkatetzak hautatutako udal langile bat, hitz egiteko eskubidea izan baina botorik emateko eskubiderik ez duena izango.

2.- Eremu bakoitzeko kontseiluen behin betiko osaera haren Funtzionamendurako Barne Araudian ezarriko da, eta dagokion eremuaren berezitasunak hartu beharko ditu kontuan, berdintasunaren arloan indarrean dagoen legedian ezarritako emakumeen eta gizonen arteko proportzioa bermatuta.

72. artikulua.- Osatzea eta zerrendatzea.

1. Herritarren parte-hartzea hurrengo organo hauen bitartez antolatu ahalko da, besteak beste:
 - a) Herriko Kontseilua.
 - b) Parte-hartzeko eremukako kontseiluak eta, horien artean, honako hauek:

- b.1.- Iraunkortasun Kontseilua edo Foroa.
 - b.2.- Berdintasun Kontseilua.
 - b.3.- Planeamenduko Aholku Batzordea.
 - b.4.- Euskararen Aholku Batzordea.
2. Udalbatzak udal arloei eskatu ahalko die egokitzat jotzen dituen kontseiluak sortzeko, baita horiek desegiteko edo bateratzeko ere, horien bilakaeraren, beharrian sozialen eta Basauriko Udalak duen administrazio egituraketaren arabera.
 3. Erakunde sozialek eta herritarrek ere Udalari eskatu ahalko diote horrelako kontseiluak sortzeko, eskaerarako edo herri-ekimenerako eskubidea gauzatuz, araudi honetan ezarri bezala.
 4. Aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera, herritarren parte-hartze organoren bateko kideren bat herritarren erakunde, elkarte, federazio, konfederazio, batasun edo antzekoen artetik aukeratu behar bada, horiexek izango dira, elkarren artean ados ipinita, izendapena egin beharko dutenak. Adostasunik lortu ezean, hurrengo paragrafoan aurreikusitako prozedurari jarraituko zaio.
 5. Aurreko paragrafoan aipatu den adostasuna lortu ez duten herritarren erakunde, elkarte, federazio, konfederazio, batasun edo antzekoetako bakoitzak, hautagai bat proposatu beharko du, une horretan parte-hartze alorrean eskumena duen arloari bidalitako idatziaren bitartez. Hamabost eguneko epea izango dute horretarako, arlo horrek deialdia jendaurrean jartzen duenetik aurrera zenbatzen hasita. Idatzi horretan erakundearen izena eta hautagai izendatutako pertsonaren izen-abizenak adieraziko dira; halaber, proposamena egin duen erakundearen ordezkariak eta hautagai izendatutako pertsonak (hautagaitza onartuz) sinatu beharko dute. Hautagaien zerrenda erakundearen iragarki-oholean azalduko da, hautagaitzarako adierazitako eguna baino hiru egun lehenago. Arloak adierazitako egunean zozketa egingo da, ekitaldi publikoan. Zozketaren emaitza aktan jaso, eta interesdunei jakinaraziko zaie.
 6. Kontseilu mistoak osatzean, emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna gorde beharko da, ahal den neurrian; horrela, bada, bakoitzak, gutxienez, % 40ko ordezkari izan beharko du.

73. artikulua.- Kontseiluen txostenei jarraipena egitea eta horiek bideratzea.

1. Herritarren parte-hartze alorrean eskumena duen arloak Herriko Kontseilutik eta eremukako kontseiluetatik etorritako informazio guztia bideratuko du, eta parte-hartze organoen proposamenen jarraipena egingo du. Halaber, kontseiluen bileren emaitzaren berri emango da hizpide den arloaren arabera eskuduna den Informazio Batzordearen lehenengo bileran.

2. Arlo horrek Parte-hartze Memoria egingo du urtero, Herriko Kontseiluari, Udalaren kudeaketa-organoei eta Udal taldeetako bozeramaileei helaraziko zaiena.
3. Parte-hartze kontseiluetako idazkaritzek bilerako aktaren kopia emango diete udal taldeei, akta onetsi eta gero.

II. KAPITULUA.

PARTE-HARTZE ORGANOEEN FUNTZIONAMENDUA

74. artikulua.- Agintealdia.

Herriko Kontseilua legegintzaldiaren hasieran eratu ahalko da, eta kasu horretan haren agintealdia legegintzaldia amaitu arte luzatuko da.

75. artikulua.- Batzarrak.

1. Kontseiluak urtean bitan batzartuko dira, gutxienez, ohiko batzarra egiteko.
2. Hala ere, premiazko arrazoiengatik edo egoki denean, ezohiko batzarrak ere egin ahal izango dira, lehendakaritzaren ekimenez edo, gutxienez, zinegotziak ez diren kontseilu bakoitzeko kideen herenek eskatuta.

76. artikulua.- Bertaratze quoruma.

Egiten diren batzarrek balioa izan dezaten, beharrezkoa izango da lehendakaritza eta, gutxienez, kideen herenak egotea. Quorum hori batzar osoan mantendu beharko da. Quorum hori lortu ezean, ondorierik gabe geratuko da deialdia.

77. artikulua.- Deialdia.

1. Lehendakaritzak egingo du batzarretarako deialdia. Deialdiarekin batera, aztertuko diren gaiak dituen gai-zerrenda eman beharko da, kontseilu bakoitzeko kideek aurkez litzaketan proposamenera arabera eginda. Batzarra egin baino zazpi egun lehenago eman beharko da, gutxienez. Batzarrerako deialdia eman den egunaren eta batzarra egiteko egunaren arteko tartea ezin izango da zazpi egun baino gutxiagokoa izan.
2. Ezohiko deialdien kasuan, ezin izango da hogeita hamar egun baino gehiago igaro eskabidearen egunaren eta batzarraren egunaren artean. Kontseilua egin baino hamabost egun lehenago bidaliko da

deialdia. Deialdia premiazko arrazoiengatik eginez gero, ahalik eta arinen egingo da deialdia.

78. artikulua.- Batzarretako eztabaidak eta ordena.

Kontseilu bakoitzeko lehendakariak zuzenduko ditu batzarrak, eztabaidak antolatuko ditu eta batzarrak ondo egiten direla bermatzeko komeni diren neurriak hartuko ditu.

79. artikulua.- Hizkuntzak.

Kontseiluen batzarretara doazenek euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute.

80. artikulua.- Bertaratu daitezkeen beste batzuk.

Eskuordetutako zinegotziak eta udal langile eta zuzendariak kontseiluen batzar guztietara joan ahal izango dira, lehendakaritzak deituta edo kontseiluko kideen herenek eskatuta, bidezko aholkularitza teknikoa emateko.

81. artikulua.- Kontseiluen asmoa adieraztea.

Eremukako kontseiluen asmoa ordezkaturako talde guztien iritzia jasotzea da (horretarako proposaturako gaien gaineko iritzia, alegia). Ondorioz, kontseiluen asmoaren adierazpena plurala da, eta udalaren gobernu-organoei egindako jarduketa-proposamenen edo bestelako proposamenen gainean kideek duten iritzian gauzatzen da.

Proposamen horietan taldeak bat etor daitezke ala ez, baina horiek guztiak aktan agertuko dira, Udalak horien guztien berri izan dezan.

82. artikulua.- Barruko arauak.

Kontseilu bakoitzak barruko funtzionamendu-arauak ezarri ahal izango ditu eta, horrela, lantaldeak eratu, edo Batzar Iraunkorrak, lantaldeak eta batzorde teknikoak sortuko ditu.

83. artikulua.- Tokia eta aktak.

Kontseiluen batzarrak Udalaren bulegoetan egingo dira, eta Kontseiluko idazkariak batzar bakoitzeko akta egingo du. Akta hori Kontseiluko mahaikideei

bidaliko zaie hurrengo aktaren deialdiarekin batera, eta hurrengo batzarrean onestea edo ez erabakiko dute.

84. artikulua.- Urteko txostena.

Kontseilu bakoitzak, urtero, tarte horretan egindako jarduerak, proposamenak, iradokizunak eta kexak dituen txostena eztabaidatu eta onetsiko du. Ondoren Udalbatzari helaraziko zaio, aintzat har dezan.

85. artikulua.- Ordezko zuzenbidea.

Agindu honetan aurreikusi ez den guztirako, Udalbatzak dagokion kontseiluak proposatuta onetsitako araudiari jarraituko zaio eta, horren ezean, indarrean dagoen Udal Araudi Organikoak xedatutakoari.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Herritarren parte-hartzea sustatzeko jarduerak.

Herritarrek udal kudeaketan duten parte-hartzea hobetzeko, Udalak honako hau sustatuko du, araudi hau indarrean sartu eta urtebeteko epean:

1. Parte-hartze Plana, udal antolaketa hobetzeko eta herri-ekimenetarako irekiagoa egiteko, elkarte-sarea egituratu eta sendotzeko eta herritarrek euren herria hobetzeko esku-hartzeari buruz duten interesa sendotzeko aukera emanaz.
2. Elkartegintza eta boluntariora sustatzeko Plana, udalerriko elkarte eta erakundeek udal kudeaketaren parte-hartze prozesuan parte hartzea errazteko.

Bigarrena.- Eredu edo esperientzia berriak.

Parte-hartzea hobetzeko eredu, esperientzia edo sistema berriak azaltzekotan, Alkatetzak horiek erantsi ahal izango ditu, Herriko Kontseiluak edo beste kontseilu batek proposatuta, eta, betiere, Araudi hau aldatzea eragiten ez badute.

Hirugarrena.- Herritarren Elkarten Udal Fitxategia sortzea.

Gehienez hiru hilabeteko epean, Araudi hau indarrean sartzen denetik aurrera zenbatzen hasita, Herritarren Elkartearen Udal Fitxategia eguneratuko da, herritarrei jakinarazteko bidezko zatik joko diren kanpainak egin ondoren. Hori dela eta, Alkatetza ahalduko da hori eguneratzeko bidezko ebazpen guztiak eman ditzan, Araudi honetan xedatutakoa betetzeraren.

Laugarrena.- Kontseiluak eratzeko batzarra.

Gehienez sei hilabeteko epean, Araudi hau indarrean sartzen denetik aurrera zenbatzen hasita, eratzeko batzarra egin beharko dute bertan ezarritako kontseilu guztiek.

Bosgarrena.- Udal Araudi Organikoaren agindua berriro idaztea.

Horrela geratuko da idatzita indarrean dagoen Udal Araudi Organikoaren 125. artikulua:

“Aurreko aginduan aitortutako eskubideak eta, oro har, herritarrek parte hartzeko duten eskubide guztiak erabiltzeko, indarrean dagoen Herritarren Parte-hartze Araudian xedatutakoari jarraituko zaio.”

Seigarrena.- Planeamenduko Aholku Batzordearen Araudiaren honako agindu hauei testu berria emango zaie:

1.- Planeamenduko Aholku Batzordearen indarreko Araudiaren 6. artikulua honela idatzita geratu da:

“6. artikulua.- Osaera.

1. Planeamenduko Aholku Batzordeak ondoko kide hauek izango ditu:

a) Batzordeburua: Udaleko alkatea, edo hark eskuordetutako zinegotzi bat.

b) Batzordeburuordeak:

1.: Hirigintza arloko zinegotzi ordezkaria edo hark eskuordetutako Udalbatzako kidea.

2.: Ingurumen arloko zinegotzi ordezkaria edo hark eskuordetutako Udalbatzako kidea. Hirigintza arloko eta Ingurumen arloko zinegotzia pertsona berbera izanez gero, alkateak hauta bidez izendatzen duen Udalbatzako edozein kide izan ahalko da batzordeko bigarren batzordeburuordea.

c) Batzordeko kide titularrak.

- *Lurralde Politikako zuzendaria; hitza edukiko du, baina ez proposamenak egiteko eskumena.*
- *Auzokideen elkarteen izenean.....ordezkari 1.*
- *Elkarte ekologista eta ingurumenaren aldekoen izenean.....ordezkari 1.*
- *Sindikatuaren izenean..... ordezkaritza 1.*
- *Merkatari eta enpresaburuaren elkarteen izenean..... ordezkaritza 1.*
- *Ezinduen elkarteen izenean..... ordezkaritza 1.*
- *Gazteriaren kontseilua / gazteen elkarteen izenean.....ordezkari 1.*
- *Emakumeen elkarteen izenean.....ordezkari 1.*

d) *Idazkaria: hirigintza gaietan eskudun den arloko goi-mailako teknikari bat, hitz egiteko eskubidearekin, baina proposamenak egiteko eskumenik gabe.*

e) *Era berean, udal talde politiko bakoitzeko ordezkaritza bat ere bertaratu behar da, hitzarekin, baina proposamenak egiteko eskumenik gabe”.*

2.- Planeamenduko Aholku Batzordearen indarreko Araudiaren 7. artikulua 5. idatz-zatia honela idatzita geratu da:

“7. artikulua.- Batzordeko kide titularren ordezkaritza:

5. Batzordeburuak, batzordeburuorde batek edo batzordeko kideen erdiek proposatuz gero, ondoko hauek batzordearen batzarretan parte har dezakete, nahiz eta batzordeko kide izan ez, hitz egiteko eskubidearekin baina proposamenak egiteko eskumenik gabe:

Hirigintza-planak idazten dituzten teknikariek.

Hirigintza eta Ingurumen gaietan ospea duten adituek.”

3.- Planeamenduko Aholku Batzordearen indarreko Araudiaren 11. artikulua 2. idatz-zatiaren c), d) eta h) atalak honela idatzita geratu dira:

“11. artikulua.- Aholku Batzordeko burua.....

.....

2.- Honako hauek dira batzordeburuaren eginkizunak:

c) Hirigintzako plangintzaren eskumena duen informazio batzordeari horrek onesteko aurkezten diren eztabaiden eta proposamenen berri ematea.

d) Kontseiluko osoko bilkuraren proposamenak betetzen direla zaintzea.

.....

h) Berak, batzordeburuordeetako batek edo kideen erdiek egoki deritzen pertsonak batzordeko osoko bilkuraren bileretara gonbidatzea, hitz egiteko eskubidearekin baina proposamenak egiteko eskumenik gabe, aztertu beharreko gaien arabera.

4.- Planeamenduko Aholku Batzordearen indarreko Araudiaren 11. artikulua 3. idatz-zatiaren b) atala honela idatzita geratu da:

“11. artikulua.- Aholku Batzordeko burua

.....

3. Honakoak izango dira batzordeburuaren eskumenak Batzordearen bileretan:

....

b) Kalitateko botoaren bidez erabakitzea, beharrezkoa bada.”

5.- Planeamenduko Aholku Batzordearen indarreko Araudiaren 14. artikulua 1. idatz-zatiaren b) atala honela idatzita geratu da:

“14. artikulua.- Aholku Batzordeko idazkaria

1. Honako eginkizun hauek izango ditu Aholku Batzordeko idazkariak, batzordeburuaren zuzendaritzapean:

.....

b) Batzordearen osoko bilkuraren bileretara bertaratzea eta aholkuak ematea, hitza izango duela baina proposamenak egiteko eskumenik gabe, eta bileren akta idatzi eta batzordeburuarekin batera sinatzea.

6.- Planeamenduko Aholku Batzordearen indarreko Araudiaren 19. artikulua honela idatzita geratu da:

“19. artikulua.- Kontseiluaren asmoa adieraztea.

1.- *Planeamenduko Aholku Batzordearen asmoa ez da erabakiak hartzea, baizik eta ordezkaturako talde guztien iritzia jasotzea (horretarako proposaturako gaien gaineko iritzia, alegia). Ondorioz, kontseiluaren asmoaren adierazpena plurala da, eta udalaren gobernu-organoei egindako jarduketa-proposamenen edo bestelako proposamenen gainean kideek duten iritzian gauzatzen da.*

Proposamen horiek taldeetan bildutakoak edo horien artean aurkakoak izan daitezke, baina horiek guztiak aktan agertuko dira, udalak horien guztien berri izan dezan.

2.- *Kontseiluko kideen proposamenak idazkariak prestatzen duen eta analisiaren xede den hirigintza espedientea osatuko duen txosten batean gehituko dira. Proposamen horiek hirigintza arloko egitura antolamenduko alternatiba zehatzak izan ahalko ditu, Udalerako lotesleak ez direnak."*

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Honako hauek indargabetuta geratuko dira:

1. Indarreko Udal Araudi Organikoaren 126. eta 135. zenbakien arteko artikulak.
2. Indarreko Elkarleen Araudia.
3. Araudi honetan xedaturakoaren kontra doazen maila bereko edo beheagoko gainerako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.